


Maiatz:

10





IRACURTCAILLE

LIBURU HVNEN MANERAZ

A B I S V A.

<i>Auxtin ZAMORA</i>	<i>Bi bitz bitzatu</i>	2
<i>Gotzone SESTORAIN</i>	<i>Goi zuloaren</i>	3
	<i>Eguerdez ere</i>	
	<i>Bilatzen haut</i>	4
	<i>Ezin izanen dira</i>	
	<i>Zein zaila den</i>	
	<i>Hostaiak</i>	5
	<i>Etxe grisen artean</i>	
<i>Itxaro BORDA</i>	<i>Mozkor</i>	6
	<i>Lanbroa</i>	
	<i>Waiting for the Sun</i>	7
	TXINAKO POESIAZ	
	<i>Marco Polo ez baiz bakarrik</i>	13
	<i>Tao Yuan Ming</i>	14
	<i>Quan, Bai Juyi, Bian Zhilin</i>	15
	<i>Gu Cheng, Ai Qing</i>	16
	<i>Bei Dao</i>	17
	<i>Lei Shuan, Zhou Liangpei, Jiang He</i>	18
	<i>Yan Li, Xiao Fan</i>	20
	<i>Zhou Jiadi, Yan Ming, Gu Chong</i>	21
	<i>Shu Ting</i>	22
	<i>He Jiming, Luo Gengye, Lin Hengtai</i>	23
<i>Marcel ETCHEHANDY</i>	XINATAR IPUI :	
	<i>Zubur bilakatu Burregoa</i>	24
	<i>Gizon biltzaile urrikitia</i>	
	<i>Arrabots egilea</i>	25
	<i>Jeloskorraren zigorra</i>	
	<i>Untzi saltzailea</i>	26
	<i>Oiloa nork iratzartzen zuen ?</i>	
<i>Jean Louis DAVANT</i>	<i>Urzoa</i>	27
	<i>Seme baten Otoitza</i>	
	<i>Sagarroia</i>	
<i>Itxaro BORDA</i>	<i>Dean Moriarty-ren orroimenez</i>	28
	<i>Eh</i>	29
	<i>Mabiz</i>	
	<i>Iparragirreri</i>	30
	<i>Kanibalismoa</i>	
	<i>La citta cremata</i>	31
	<i>Auskalo Tom Simpson</i>	32
<i>Eredu literarioen transmisioa E. Herrian</i>	34	
<i>Mikel DUPAK</i>	<i>Añarroa (6)</i>	37
<i>Joseba SARRIONAINDIA</i>	<i>Tzakur apaltien orbitze gisa</i>	40
<i>X X</i>	<i>Birmoldaketa</i>	47
<i>Txomin PEILLEN</i>	<i>Ni ez naiz bemengoa liburuaz</i>	48
<i>Mayi PELOT</i>	<i>Aire</i>	51
<i>Lucien ETXEZAHARRETA</i>	<i>Hiriburuko zakurra</i>	52

BI HITZ HITZATU

**ZURE BEGIRA,
DENBORA JOAN ZAUT,**

**Nahiz, begiak argiari buruz bihurtuak izan,
iduzkiaren izpiek, ahulduz,
hain gora diren einarak,
erakusten dizkidate bakarrik,**

**neure azola, egaldaka
dohala, edozoin, mugitzen diren,
izaitedun guziekin,
ezin dut geldiaraz,
egun hunen lasterkada,**

**gauaren osina hor daukat,
urkatzeko zure ikustearen mentura,
bai, hitzatzeko «Trixe Paketa» bi hitz hauiek,
neure barna barna baitake,
sartzeko ate gainean,**

**udako egun iragan goxo hunen
errenkura bat bezala,
altxatuko delarik lanbroa,
lurraren barnetik,
ni ere xutituko naiz
ez dakit nora itzultzeko
BAI,
ZURE BEGIRA,
DENBORA JOAN ZAUT**

Goi zoluaren ubeltasun trinkoa
suaren erreginak urrezko irriz
ehuntzen dian aldiero,
goi zoluaren araztasun urdina
itzalzen dian bakoitzean,
enaren botsez bustitzen diat
bire iratzartzearen
eta loakartzearen nagia.

Ene abotsaren ubinek
bire bularraren lebiatilak
iragazitzea baleukate
zenbat musikaz argituko ote
niakeen
butsarte ixil horren butsa !



Eguerdiz ere
amesten dudala ote da,
edo ametsaren sorgin baizeak
gorputz bilutsien jazmin lurrinez
besarkatzen nauela
ausentziaren eza ere
izarren begi maiteminduen lanbroz
bustitzen didala.

Sumatzen zaitut
ibes eta ibes
borma biloztu bauetatik ibes
eskailera zalkortuak bidez
munduarengandik ibes
zubaitz larrugurrien urteroko
zeta horlegia
lez

behin eta berriz ibes
espazioaren esentzian zure bakardadearen
bostoak ereinez.

*Bilatzen baut
basamortu mugagabearen biluztasunean
zebar,*

*basoaren estaldura bertsian,
aintzira urdinen mintzaira geldoan,
eta behin eta berriz
bire oin aztarnekin topo egiten diat
bainan,
birekin ez
inoiz.*

*Bilatzen baut
eguzkiaren lastan labainetan,
baizearen ezpain dardartietan
eta suaren errai odolduetan
eta euri langar finaren musuetan
eta behin eta berriz
bire ausentziarekin
suertatzen nauk.*

*ETA bilatzen baut
zentzurik gabeko bilatze erratuan,
bire eskuaren adiskidantzaz
nabilkialarik zorabiozko irrikian ;
luzatzen diat
neurea
ametsezko edalontzia bailitz
berriro ere
bakardadearen eza zurrupa dezadan.*



*Ezin izanen dira
bertan behera bota
bizitzaren ubideak
ezin izanen dira
patuaren orratzak
sekulan alda ;
baina
ausartzen den ibildariak
aurki dezake
bere bihotzaren leizea
argi dezaken iputargia,
zulatzearen poderioz
lor bait lezake
bakoitzak
bere zurezko kaxan
lebiotxo baten ametsa
gauza dakion.*

*zein zaila den
bien arteko barresiak
behin betikoz iraultzea,*

*bain burbil egonik
eskua eskuaren ahurran pausa dadin
bain xume izanagatik*

*zein zaila den
barne barrari amore ematen*



Hostaiak
 eta hostoetatik ernatzen ziren
 txoriek ere
 hotsegin zidaten
 bertan gera nendin,
 eta Floridako pakean
 gertu nintzen
 itsaso berdean
 barneratu nintzela.

Eta begiak
 zorabiatu bezela,
 jostetan basi zitzaizkidan
 itsasoko olatuak bailiren ;

behin hostaitik at
 ortzeko gandu koto itsuan
 eskegitzen ziren,
 beste behin hostaitik bona
 lore eta belarren
 usain bezean
 galtzen zitzaizkidan

lekuaren erreferentzia
 behin galduz,
 deusean
 pausatu nintzen eraino.
 Orduan
 sosegatu

nintzen.

Etxe grisen artean
 kaleak bonuntz eta baruntz
 gurutzatuñ,
 eskapareteak,
 eta eskaparateko ispiluetan
 isladatzen zirenak
 zebarkatuñ,
 oinezkoen begirada izuetan
 liburtu nintzen
 soseguzko dinbairik
 bakardade itogarri hartan
 barrapatzeaz,
 nabiz barrapatzeko lebiaz.

Lebiaz,
 baiman lebia
 leize zulo baten
 erori zenez,
 kotxeen orru eta kexuetatik
 begirada botzen urruntasunatik
 kale dardartietatik
 ibesi abiatu nintzen,
 bertan aurkitu ez nuen
 sosegua
 ene baitan benik
 hatzemateko asmoz.

Ibesi nindoan
 eta ibesean nindoala
 floridako zubaitzian
 murgildu nintzen,
 haizearen usainaz
 bustitzerat,
 Floridako zubaitzi hertsia
 bosto mardulen bizia
 zainetan biziki sentitzerat.

Lanbroa
 mara, mara
 lanbroa eta lainoa
 maldan behera.

Malda erreka
 eta Bidasoako maldak
 barrena,
 R-9an erdilotan noala,
 bedatzen da
 zoko laino barroa.

Kotoi esnetsua legez
 Malda erreka
 eta Bidasoako maldetan
 datzan
 haritz, lizar,
 pinu,
 eta bainbat landareen
 bake lurrintsua
 laztantzen du
 laztanez xurgatu
 goizeko zoko laino lanbroak.

Lanbroa
 mara, mara
 lanbroa eta lainoa
 maldan behera.

Malda erreka
 eta Bidasoako maldak
 zeharkatzen ditudanean,
 lainoak darion
 lanbro bitsa
 nere bakardade etsituan,
 etsipen bakartian,
 bakartasun goibelean
 sartzen
 xukatzen doa,
 nere begiak
 malko gazi eta minez
 lausatzten doazen
 heinean,
 lanbroaren pausaleku
 lanbroz laku
 bailiren.

Gotzone Sestorain

Mozkor saltsa
 berdin
 gaitzeko auntza ;

whisky eta pattarrarekin
 sabela barrutik
 zein kanpotik bustirik,
 kanutoaren eraginez
 hodei bidarietan
 ifarretik begoaruntz
 saia arroxez apaindurik
 bidaian,

whisky, pattarra, kanutoa
 aldaroka, aldaroka
 mozkor saltsa gaitza !

Mozkor gaitza
 berdin
 inkomunikazio latza ;
 gaitzeko auntsaren leben batza
 inkomunikazio komunikazio gaitza.
 Gizakumeok elkar errefusarazten
 gaituzten gezi bortitzak
 norberak besteengana jaurtiki
 obi ditugunak
 errusten ez ditugun bitartean
 orbainduko ez den gaitza.

Inkomunikazio gaitza
 berdin
 gaitzeko auntze latza.

whisky, pattarra, kanutoa
 aldaroka, aldaroka
 mozkor saltsa gaitza
 Bizkarretik beldurik
 bete latzak boteaz
 jendea bero, bero
 bertotan eta algaraka
 eta mozkor saltsan
 dantzan aldaroka.
 algaraka eta aldaroka
 a ze nolako auntze hatsa !

Auntze hatsa eta kiratsa.
 Enparantza, kaleak
 ostatuak...
 izerdi usainaz
 izerdi, tabako eta alkobolaz
 nabasian
 galanki
 lurrinduak.

*this is the strangest life
I've ever known*

Jim Morrison

- I -

Entzun ohi da bazterretan beltza kolore ederra dela, zuriarekin nahasirik dagoelarik batez ere. Bestela beltza, edo zuria ez dira koloreak : koloreak sortu aurreko, edo loratu ondoko kaos miresgarriaren leku-kotasunak baizik. Ordu haietan munduari gertatu zitzaiona miresgarria zen, eta aldi berean harrigarria.

Hogeita lau egun baziren lurreko abereek, jendeek, belar landare mota guztiek etzutela eguzkiaren argirik sumatu. Askok hainbestetan madarikatu zuten ekia- ren itzultzea bihotzez desiratzen zuten. Eguzkiaren argiz eta beroz beteak ziren orduko bizidunen amets ilunak. Baina gau etengabeak zirauen ; menturaz orai- no gehiago irauen zuen...

Aspalditik, hasera-haseratik dudarik ez, zeruan itargiaren hatzak galduak ziren, eta etzen nehondik izar bakegarrien disdirarik ageri. Hogeita lau «egun- en» buruan jendeak keskatzen hasi ziren. Autoritate ekonomiko-politiko-moralei beldurturik xehetasunak eskatzera zihoatzen. Administrazioan, funtzionarioek, eskale humilak bulegoz-bulego bidaltzen zituzten, nehork ez baitzezakeen esplikazio zehatzik eta razi- onalik eman. Buruzagi orokorra galdegiten zutenean, funtzionari herabeek ihardestn zien : «*ba, anderea, Godish jauna ibilaldi baten egitera joana da, zuzen ez dakigu Bangkokken edo Delhin dagoen, baina bihar deituko gaitu. Zatoz bihar zerbait berri jakiteko...*». Beti arrapostu berdina : gauaren eternitate horren arrazoinak nehork ez zituen ezagutzen.

Hogeita laugarren «egun» hortaraino jendeak lasai zeuden. Ordulariak aintzineko tenorean atxikiz zioten : «*bai, bihar argituko du,...*» eta biharamo- nean, eguzkiaren printzak ez ikustearekin ez ziren ordea etsitzen : esperantzaz hantuak zituzten go- goak... Herri bakoitzetako gobernu autonomoek neur- ri handiak hartuak zituzten, oraindik katastrofea dei- tzen ez zuten gaualdi luze honen ondorioak men- dratzeko : bide bazter guztiak, lantegien inguruak, dantza eta atsegin merke lekuak, liburutegiak, men- dietako paseo-xendera ertzeak denak artifizialki argi- turik zatzizkaten, jendeak «normalki» bizi zitezen.

Gaua zenez, osoki gaua, bihar, atzo, etsi, herene- gun hitzek ez zuten erranahi finkorik. Hitz horiek, beren izatea gauaren eta egunaren arteko berezketa funtsezkoan zeuzkaten erroak, sustriak. Berezketa ezeztaturik zegoenez hitzek ez zuketzen existitzeko premiarik. Gehienak iraganaz mintzo ziren, zerbait etsidura gorderen aztarnak zekarzkitela abotsean : «*gaua erori bano lehen zoriontsu nintzen. Goizean, jeikirik kirolan espezializatu egunkaria irakurri on- doan arrantzara abiatzen nintzen. Bizpahiru amuar- rain nekazkin etxera, eguerdiko bazkariko emazteak kozinatzeke gisan. Gero arratsalde zarrakan ibiltzen nintzen eta ate irekiaren atarrian emakume bat har- tzen nuen harekin oso merke larrua jotzeko. Orroi-*

tzen naiz bereziki Roxanetaz, ze begiak, ze sabel elastikoa...». Besteak orduan mintzalaria hortan mozten zuten : «*ba aspaldiko kontuekin aritzeak ez du ezer ekartzen, hobe da momentuan ixilik egotea ! Utzi ipuin haragigarriak argituko dueneko...*». Eleka ari zenak hitz iturria ebakitzen zuen : «*eta sekula ez badu gehiago argitzen ?...*». Beste delakoak irriz hasi ziren, zahar erreak arraileria on bat ahozkatu balu bezala.

Gobernuek toki guztiak eletrifikatu arren argirik gabeko lekuak gelditzen ziren. Pobreak egoten ziren zelai ikaragarriak zitezkeen haiek. Noski gobernuek ezarri eletrika pagatzen zen, eta pobre guttik zeukan behar haina diru argi artifizialaren pagatzeko edo ordaintzeko. Gainera, laster, gaualdiak berrogei «egun»-eko muga fatidikoa pasatzen baldin bazuen aberatsek metatu sosa ere deusetarako etzen izanen, eletrizitate faltaz : jada produkzioaren % 90 ematen zuten zentrala nuklearrak agortuak ziren, eletrizitate eskasez hauek berdinki...

Emeki emeki denbora doanaren ezaugarri ziztuzten ordulariak gelditu ziren. Alabaina eguzkiak argitzen ez baldin bazuen nola finkatu behar zen egunerdia, gauerdia etab. Ordua eguzkiaren argiaren itzalak gidatzen du. Ilunean denboraren ibilera ezeztatua da. Azkenean, nehork ez zezakeen tenorea erran, azkenean nehork ez zakien benetan bizitzen zuen ixtantea «normalean» gauetz edo egunez luzatzen zitzaion. Araberan, espazioa ere hertsatu zen jendeen inguruan, artifizialki argituak ziren tokietaz aparte, beste guztiak ilunean (itzalaren faltaren latza !) egoten zirelakoan.

Gero eta aintzinago (Hogeita hamargarren eguna), gero eta beltzago egin zen gaua, nolabait eletrika debaldezkoa agertu baitzitzaien gobernuei. Ordu hartarik goiti bakoitzak erabaki zuen bere-beretik irauten katastrofea jasaiten ikasten hastea. Ilunean ez zen laguntzarik idurikatu behar, beltzean gizakiak etsai ziren, besterik gabe. Etxeak, arbolak, abereak, kolorerik ez zuten arrosak berak mehatxuz kargatuak agertu ziren. Bakoitzak bere barneko eta kanpoko gaua ihardoki, asumitu nahi zuen...

Anartean, jakintsunak bildu ziren gaualdi harrigarriari buruzko kolokio internazional baten antolatze-ko, Zanzibarreko hirian. Ahal zuten bezala bideratu ziren Zanzibarrera : zaldiz, kameluz, lamaz, astoz... Jakintsun frango, eta ez txarrenetarik, hilak aurkitu zituzten. Erran gabe doa, kolokio hortan arpegi azalaren koloreak munta edo inportantzi guti zuela : beltzean, argi eskasez, gorria, xuria edo beltza bera ezaren kolore bakarrean urtzen ziren. Zanzibarreko udako palazioaren ateetan ilunez jantzi ikus ez zitezkeen polizi harmatuak ba ziren. Nortasun agiriak kontrolatzen zituzten, ezkoak argiztatu ttattoletan...

Katmanduko budharen tenplo handian lanean ari zen astronomo famatu batek hitza hartu zuen. Dalai Gupta Sandhra jauna horrela mintzatu zen : «*Orain, orduan kasurik egin ez nion fenomeno natural bitxi batetaz gogoratzen naiz. Nire teleskopio indartsuarekin usaian bezala Orionen konstelazioari begira nindagon. Badakizue Orion konstelazioa galaxiako ederretarik bat dela. Espiritu komunek lurrean «bide esnazua» izendatzen dute... Lunetaren aurrean, besteak baino abiadura lasterragoa zuen izar urdin bat pasatzen ikusi nuen...*

*Izar urdin amiragarri hori nondik zetorren ez naki-
en, baina indoeuropear zaharrek idatzi luburuetan
haren izatearen berri banuen. Tamulherriko zuhurrek
zioten izar horren agertzeak munduaren akabantza
ekar zezakeela... Baina nolaz zuhurren solasek beti
ideia metafisikoak parabolaz inguratzen zituzten,
ez nuen sinetsi nahi...*

Eta horregatik gaur arte ixilik gelditu naiz... Bestalde, hego Indiako sekta baten liburu sailduan izar urdin hori zehazki deskribatzen zen : gure galaxia ez da bakarra, halatan galaxia beroak badira eta galaxia hormatuak ; gurea eguzkiaren eraginez beroetan klasifika genezake. Gertatu dena ximplea da : galaxia hotz batetik etorri izar hormatuak eguzkia desintegratu du... Horrek gaualdia esplikatu dezake...

Astronomoaren azalpenak bakea behintzat sortu zuen gehienek bihotzetan. Gaualdiak aste bat baizik ez zuelarik, amerikanoak eta sobietarrak elkar mandoka arizan ziren : batek bestea and vice versa bere satelite puxanteen bitartez eguzkiaren inguruan suak ezin errezko oihal metalikoz inguratu zuela. Bistan da, bi herrialde horiek eta beren aldekoek nahi baldin bazuten gaualdiaren arrazoinaz jabeti estakuru estrategiko bat bazen : biek eskuratu gogo zutela etengabeko gauaren sortzearen monopolio metafisikoa... Alaietan, hogeita lau «egunez» gaua egin zezakeenak besterik ere obra zezakeen. Baina aldi honetan etzen arsenal nuklear emendatuen kontua... Dalai Gupta Sandhra jaunak ederki esplikatu zuen guztia...

Ivan Cain Adamovitchek hamazazpi urte gasta-
tu zituen Hunts villeko presondegian, bere anaia zen
Igor Abel Adamovitch hil zuenez geroztik. Ilirietako
jendeak normalki eguzkitan, argian bizi izan zirelarik,
kartzelako zaindariek beti zelda itxi eta ilun batotan
zatzikaten... Ikusmena gaueko huntz eta kahaken
parekoa bilakatua zitzaion. Gainera ingurumenaren
hunkimen berezia ardietsi zuen kartzelan egon zen
hamazazpi urte luzeetan. Gaualdiaren hogeitau zort-
zigarren «egunaren» buruan presondegiak ireki zituz-
tenean, eta Ivan Cain Adamovitch kalean agertu ze-
nean, etzen egia erran batere harritu : beltza, iluna,
ixiltasun bortxatua bere mundua zen...

Cain Adamovitch jauna zibernetikan diplomatu
haietarik zen. Azken urteko etsaminak baina lehen
bere anaiarekin haserreturik, Barbara izena zuen blon-
da faltsu bat zela zio, mendietara gordetzera ihes egin
zuen, pentsatzeko... Ilargia betean zegoen gau batez,
zuhaitzek hostoekin kantu misterioetsua abesten zute-
larik, Barbara hura eskuratzeko edo hobeki erranik
oheratzeko medio bakarra bere anaia Abel, labanez
sarraskitzea zela iduritu zitzaion. Hiru egun berantago
anaiaren hiltzea obratu zuen...

Ondoko gaua Barbararen besoetan iragan zuen,
eta biharamonean polizia bere bila etorri zirenean
ez zuen gibel keinu bat ere egin justiziari eskapatzeko.
Barbara hila zen : suizidio bat zela erantsi zuten poli-
ziek, Barbararen kontua hortan gelditu zen. Baina ne-
hork ez zukeen Cain Adamovitchen sekretua ezagutzen :
bere fantasmak konpliturik Barbararen azken hatsa-
ren jabe bihurtu zela Cain Adamovitch. Betikotz !

Kartzelako zelda beltzean zegoela Cainez denbora
erabiltzen ikasi zuen. Egun normal bat balitz bezala
gaua organizatu zuen, barneko sentimenduen arabe-
ra. Harentzat gauean denbora zihoan nehongo ozto-
porik gabe : loa, iratzar uneak, janaldiak, pentsa ga-
raiak, kirolak eta berriz loa. Ororen buru ez zen hain
zaila gaueko «denbora» partikularraren ereduak asma-
tzea. Aski zen haragiak manatzen zuen bidea hartzea :
funtsean gauaren eta egunaren arteko separazioan ze-
tzan gizatasuna. Behar bada beste nelton ez... Bereziki
ez ziren gaualdi aintzineko ohidurak, haien ardurata-
sun edo frekuentziak ahanzi behar : jendeek tenore
berdinean gosaltzen, bazkaltzen, afaltzen zuten eta
gibelak ordu bat lehenago gosearen sensazioen berri
igortzen zuren buruhunari. Gero nahikoa zitekeen
gosearen sensaziotik jaterainoko unea neurtzea eta
arte hortan denbora bazihuan.

Gaua beltz-beltza denean ez da menturaz errez
irakurtzea. Imaginazioa martxan jarria zuen Cain
Adamovitchek : guztiek bazakiten irarkolatik ateraz-
ten ziren idatziz ilundu paperak ez zirela arras legu-
nak, zelaiak. Ohitura zuenak aise dexifra zitzazkeen
eskuz hunkiz letrak, hitzak eta ondorioz perpausak.
Irakurtzea munduarekin kontaktuan egoteko medio
bat izan zen Ivan Cain Adamovitchentzat. Hamazazpi
urtez ez zuen besterik egin...

Karrikan ibili zenean, azkenean libro, libro,
Adamovitchek ez zuen gehiago ezertaz mendekatzeko
gogorik, Are gutiago ikusi zuenean mundua gauak es-
tali zuela, nehork uste gabeen. Naturak bere mende-
koa galaxiari jasan arazi zion. Dudarik ez, Cain Ada-
movitch zoriontsu zela orduan : bakarra zen gaualdi
latzarekin konpontzen zena !

Segidan Adamovitchek senditu zuen ilun honek
ez zuela erro artifiziala, gizonaren nahiak ez zuela
gertakari honetan indar izipirik. Hamazazpi urtez
berak bere krima inizatikoa kario pagatu zuen, eta
munduak sortzetik orain arte bazuen hainbeste krima
eginik, deusetaz nehoiz ezer ordainduz. Pentsatu zuen
etorria zela, hainbeste krima inizatikoz pairatzeko
ordua. Zergatik ez zen Ivan Cain Adamovitch zorion-
tsu, edo behintzat kontent agertuko ? Nork ebats
ziezoken dretxo arrunt hori ? Bihotzean argia lora-
tzen eta pizten nabaritu zuen ...

Karrikan, gauari ezin adaptatuz ari ziren jende mi-
serableak kurutzatu zituen. Itsu mandoka bazabil-
tzan, eta gizaren zango gainetan ibiltzeko usaia galdua
zuten. Leku batetik bestera kukubilka punpeka kur-
ritzen ziren, ziminoen eran. Hogeitau zortzi «egun»
gau aski ziren gizona abereen lerroan ezartzeko...

Ivan Cain Adamovitch zutik zabilan, eta ilun bi-
txiaz baino bere kideen egoeraz harritu zen. Hantxet
ezkinean hiltzera kondenatu nahi izan zuen juje ba-
lentriz hantua ikusi zuen. Irri sekretu batek zilatu
zion ahoa : denek hiltzera kondenatuak izatea merezi
dugu. Aberatsen eta pobreen artean, zurien eta kolo-
rezko pertsonen artean, ederren eta itsusien artean ez
zegoen gehiago mugarik. Gauak diferentziak irentsiak
zituen...

Kandela ahul baten itzulian bilduak ziren jende
multxoaren barnean sartu zen. Ongi begiratu zieten
arpegira, eta ohartu zen begiko ninika beltza desager-
tua zitzaiela : lehen ikusi gabe ikusteko espantua zu-
tenak itsutuak ziren. Larruek koloreak galduak zituz-
ten, manera hortan gizon oro transparente edo uhar-
gi bilakatua zen... Ivan Cain Adamovitch mintzatzen
hasi zitzaion : «*Zer gertatzen da Gaua erori dela-
koan zuen gizon edo emazte izate fierraz biluziak
zarete ? Zuek aintzinean, hain indartsuak zineten...
hain jakintsunak... Krima xoil baten gatik hiltzera
kondenatu nahi zenutenak argia ekarriko dizue...
Hegoruntz abiatuko naiz sarri eta handik argia ekar-
riko dizuet. Barkatzen ikas ezazue, bide zeharka ibil-
tzen ikas ezazue, gehienetan beti zuzen tente poten-
te joateak leize hutsera bait garamatzi... Hegotik ar-
gia, eguzkiaren argia eskuartearen ekarriko dizuet...*».

Cain Adamovitch ixildu zenean batek eskatu zion : «*baina nor haiz hi, guri horrela hitzegiteko ? Jakin ezak hemen profetak kurutzefikatzen, edo erretzen, edo torturatzen, edo konzentrazio zelaietan marginalizatzen ditugula... (bere lagunei oihuka) Sokaz esteka zazue eta kitto !* ».

Cain Adamovitch jenden gainetik jautsegin zuen eta «*argia ekarriko dizuet*» deiadarkatuz gauean urtu zen. Sokaz lotu nahi zutenak ez ziren normalki lasterka artzen ahal : ziminoen eran baizik, menbroetan askoz indar gutiagorekin naski... Urrundu zenean pentsatu zuen gauak gauza frango abolitu edo ezabatu baldin ba zituen ere zuhurren eta zoroen muga ez zuela ito oraindik. Baina muga hori ere suntsituko zuen denborak, edo denbora ezak, zuhur guztiak gaualdiak zorotuko bait zituen.

- III -

Hogeita hamabi «egunen» buruan eletrika iturriak agortu ziren, eta jendeak argitzeko bezain berotzeko uste izigarriak altxatzen hasi ziren. Baina gizak ez zituzkeen bakarrik egurrak, hosto eihartuak arbola eroriak erretzen, berak eta mila belaunaldik metatu jakitatea erretzen zuen denbora berean beharrak, behar material arruntak manaturik. Erre, erreko, erretzen : ez zen hitz diferentik aditzen bazterretan...

Adibidez, hogeita hamabostgarren «egunetik» goiti paper eta liburuak aurdiki zituzten suaren asetzeko. Munduko artxiboek eta bibliotekek zatxizkaten texto zaharren manuskritoak, dokumentuak, irakurgaiak, denak erre zituzten damu izpirik gabe. Gaualdia etorri baino lehen gizaki komun gehienek pentsatzen zuten, bistakoa denez goraki kantatzen, liburuak ez zutelako gizarte langiletsu eta borrokan kementsu honetan lekukurik merezi. Orduan Platonen idazkiak, Danteren komediaren bertsoak, Rimbauden poesiak eta Buzzatiren ipuin bildumak sura botatu zituztenean nehorik ez zuen negarrik egin. Ba ziren alta batzu begiak bustiak zituztenak : poliziak, beren liburuak besapean zeuzkatela tirokatu zituen. Haien hilotzak erreak izan ziren... Munduaren, gizartearen memoria osoa galdu zen...

Uste zuten bakarrek, mikrofilmetan, konputerteko disketa ttikietan bildu munduaren memoria ezin hunkizkoa zela. Irradiazio nuklearren aurka segurtatuak baldin baziren, ez zitezkeen gizaren barbarokeria xoilaren kontra imunitatuak. Eta ez pentsa behar gorria agertzen denean, gizon edo emazteek liburuak edo munduaren memoria errespetatzeko gogoia dutenik... Lehenik jan, gero berotu... Prioritatea hor zegoen.

Baina hogeita hemeretzigarren «egunetik» at papearak zuhurtu ziren. Gaualdiaren haseran hil eta artean zenduen gorputzak aurdiki zituzten surat. Haragi kixkaildu usain gogorrak bete zituen inguruak. Azkenean bizidunak hiltzen ari zen suarekin gelditu ziren, halako beldur hormatu batek hezurak ikara arazten zitziatela. Bukatzeko gizadiak sua nola pizten zen ahan-tzi zuen. Harriak elkarren artan joz, zaharrek suaren eta eguzkiaren garaiak nostalgikoki aipatzen zituzten. Denbora arruntaren neurria galdua zenez geroz denei iduritzen zitzairen zaharren ixtorioak aspaldikoak zirela : zenbat mende, zenbat mila urte... Alta duela berrogei egunekoak baizik ez ziren...

Gaualdiaren erruz, gizakiak suarekin batera orroitzeko ahalmena galdu zuen. Hemen agertzen zen energiari gabe ez zela edozein motetako akumalaziorik sortzen : suaren bitartez bizidunek memoria kolektibo ardietsi zuten. Eta orroitzeko ahalmena pertsonak esperatzeko duen kapazitateari lotua zen. Denbora finkatu ezean, orroitzapenik ez zegoen. Baldin ez

bazen denbora atzo, egun, bihar hitzetan materializatzen nola ordenatuko ziren orroitzapenak, esperantzaz bera atzoaren eta biharraren arteko lokarria zelarik ? Lokarria, erran nahi baituzten batetik bestera zihuan suaren energi mugitzalea. Baldin ortzean eguzkiaren mugimendua gelditua bazen, zerk biltzatuko zuen atzoaren eta biharraren arteko lokarria ? Emekiemeki jendeek «argituko zuelako» esperantzaz hustu ziren...

Abereak goseak hil zituen, espezia ahulenak lehenik, azkarrenak ondotik. Belardiak, arbolak, landareak eguzkiaren desagertzearekin lehortu ziren : fotosintesisa egiteko alainan argiaren beroa behar beharrezkoa zeukaten. Enborrak, brankak, abarrak sapaz errautsi ziren orduan... Eta ibaiak hormatu... Geroroxeago, norbaitek kondatuko zuen bezala, itsasoa jabal zegoen. Itsasoak aintzira urmaelzu bat zirudien. Maitaleak eta desesperatuak kontsolatzen zituzten uhain hagunez kargatuak loak hartu zituen. Zuzenen loak.

Duela berrogei ta hamar «egun» hasi zen gaualdia ; jada lurraren azala izozten ari zitekeen. Toki batzuetan azala hain zen gogorra non errez hausten baitzen, eta zauriek ireki ziloetarik sumendi aspalditik zenduen odol erre malgo beroa ixurtzen zen.

Gizonak bizi nahi zuten, eta ondakin ustelduz auzten ziren. Katastrofe aurreko urteetan gerla ezagutu zutenek zioten : «*orduan, trinixerretako infernuan ihardoki baldin badugu, zergatik ez gaurkoan !* ». Egia zen txorien kantak ez zirela gehiago entzuten. Txorien itxurak zerua desertatua zuen, eta gizakiak ez zezakeen asma zer izan zen txoriek simbolizatzen duten libertate edo askatasunaren edukina... Gainera, zainak zarta arazten zituen ixiltasun pizu hori !

Egunak eta gauak zehazki finkatuak zirelarik, barneko ixiltasun dorpea ez aditzearen zarata organizatuz (musikaz) edo desorganizatuz (baserri eta karriketako makinaren azantzaz) hazten ziren pertsona ugari bere buruaz beste egin zuen. Gauak ixiltasun hotz soportatu ezina hedatu zuen inguruetan. Ordu hartan, balizkako kotera malinetik itxiripuz eror zitekeen ur tantta umilenak gizartea izi zezakeen : ur tanttaren oihartzun multiplikatuak bomba atomikoen esplozioaren burrunba mehatxugarria zirudikeen. Den mendre-neko azantz ttikienak mendekua seinalatzen zuen... Ixiltasun metafisikoa : jainkoen mututasuna apurtzeko etorria zen ixiltasun galkorra.

Gaualdiaren bi edo hiru lehen egunetan maitaleak uros ziren. Iduritzen zitzairen gau osoa baino askoz gehiago zeukatela, bai maitatzeko eta bai batek bestea nasaiki sufri arazteko : amodioaren prezio bakuna.

Gaualdiaren haseran ez ziren holandako oihaletan moztu eta josi mihiseetarik mugitzen : paradisuak. Gauak arras luzeak zirenez mila aldiz arra egiten zituzten atsegineraino zeramazkiten gestu zabal eta hurriak : ferekak, musuak... Ordea, geroroxeago eguzkiaren argi indar faltaz beren kemena ahuldu zen. Argiak hazten zituen hormona sexualak agortu ziren : FSH eta LH... Gizonak emazteengandik, aldrebes ere, desgostuz, atirantzia eskaséz berezi zitezkeen. Maitasuna orohar hormona edo partikula kimiko ixtorioaren. Besterik ez.

Gehienik negarrez arizan zirenak emakumeak ziren. Ilargiaren desagertzeak ondorio txarrak ukan zituen haien fisiologian. Astre urdinak zuen bixtan dena, manatzen hileroko hilbeltz edo mentruazioen frekuentzia. Medio artifizialez hilerokoak kontrolatzen baldin ba zituzten ere, haurdun ez izateko, beti plazerrekin ikusten zuten azpi artean hogeita zortzi egun oroz agertzen zen jario gorri lodia. Emazte bat mintzatzen hasi zen : «*Gau nekagarri hau dela estakuru,*

ez diot herrarik atxikitzen nere amari. Neska ttikia nintzelarik, emakume bihurtzekotan ixilik, muturik gelditu zen. Eta odola erortzen senditu nuelarik izigarriko tristezi beldurtiaz lehertu nintzen. Denbora asko eman dut, hileru nere emaztetasuna onhartzan, jasaiten eta azkenean egoera hortaz baliatuz gozatzan. Denbora askoz ere nere ama mutua madarikatu dut. Erraten ahal zidan, eta samurtasun gehiago eskaintzen ahal gaurkoan bakartasuna ez nezan sobera minberaki bizi. Baina gauarekin dena barkatzen diot ...»

Zuen arpegi gogor eta hertsian malkoak ixurtzen ikusi ziren...

Hirurogeigarren «eguna» pasatu zen. Lurrak kaos aurreko itxura zuen : ixil ixilik, ordea heriotzaren ixiltasuna. Ezer ez. Hutsaren hats hutsa hutsean hutsetik zarion...

- IV -

Ivan Cain Adamovitch, hamazazpi urtez krima inizatiko baten gatik kartzelatua, libratua izan zenez geroztik, bide beltzean bakarrik zabilan. Presondegi-ko zelda ilunean ezargiari ohiturik, askok usteko zuten errez ibiltzen zela. Baina ez : hamazazpi urtez zeldako ingurumen hurbila ongi ezagutzeko premia baldin bazuen, kanpo urrutiarri arras arrotz gelditua zen.

Haseran, bere burua supergizon senditzen zuen. Beste guziak, beltzari ezin adaptatuz abereak baino beherago jautsiak ziren. Iduritzen zitzaion hura zela liberatzalea, argia etorriko zela oihukatzen zuen profeta, egunsentiaren mezulari madarikatua, jendetza herabetuaren gida segurrua. Laster, bista galdu zuen, eta kalziko bihurtu arkaizetan, usteldu arbolen artean itsu-mandoka zarraikan. Itsutzearekin usaian ez bezalako negar gutizia sortu zitzaion. Behar bada orduko malko kontrolatu bakoitzean gizakume xoil bilakatzen ari zen...

Desesperatzea ez da etsitzea : hona zer ikasten zuen zegikeen urrats gaizki markatuetan. Bakarrik zagon, kartzelako zelda ilunean ez zuen sekula horrelako sentimendu garratzik sumatu. Bizidunak bakartiak ziren, ez poetek asmatu ideal kixkailduen moduan bezala, baizik eta sikologikoki, fisiologikoki. Bakartasun hitza baino sakonagoko erranahia zuen errealtatea zen. Anaitasuna, adiskidetasuna, batasuna ?... Utopiak, ilusioak, desilusioak frangotan : baina bizidunek, eguzkiaren argitan, ilusio horien behar biologikoa, instinktiboa zeukaten, batez ere espeziaren kontserbatzeko...

Bazakien Ivan Cain Adamovitchek gizakume bat baino gehiago biltzen ziren tokietan, beti bi klasetan banatuak zirela jendeak : dominatuak eta dominatzaileak. Dominatzaileen diskurso koertzitiboak batasun, anaitasun edo adiskidatsun hitzak erabiltzen zituen. Konzeptu horiek osoki askatasun indibidualaren aurka altxatzen zituzten... Dominatzaileak abilak ziren, funts metafisiko handirik ez zuten ixkanbilak sustatzen zituzten gero borroka garraituaren ondotik beren indar jadanik mila aldiz probatua azkartzeko... Zirkulu madarikatu batean sartua ziren gizakumeak.

Egia zen, argitzen zuen garaietan, duela hirurogeita bost egun/gau, askatasun solasak munta gaitza zuela, zinezko askatasun balore bakarra bakoitzak bere pertsona ongi artatzea zelarik. Askotan askatasunik den mendrena kartzela bihurtzen zen. Eta oroz gaineratik, askatasun politikoa edo nazionala. Halatan Ivan Cain Adamovitch ilunean joanago eta bihotz barnean urtzenagotzen zen...

Zergatik behar ziren adiskideak ? Kontseiluak emateko, xangrinetan kontsolatua izateko, laguntzeko. Blabla izigarria ! Adiskidearen ideia errepresiboa zen : adiskide artean borroka sustatu ixilak agertzen ziren. Nehork ez zuen zinez besteak entzuten, esku-tatzen, aditzen, bere burua bai, eta denek adiskide izanik edo ez, nahi zuten (iduriz behintzat) erara gobernatzen zituzten bizitzako harat-honatak. Orain, Ivan Cain Adamovitch gogoratzen zen unibertsitatean zegoen denbora adiskide min bat bazuela. Orroitzen zen zenbat humiliacione, zenbat apaltze, zenbat ixiltze jasan zuen bere adiskide poetaren pertsonalitate garrantzalearen onhartzeko. Bera zintzoa zen, besteak aldiz ardura gertatzen den bezala, bere poeta joko zoziala jolasten zuen antzerki galgarriaren moduan. Azkenean, delako adiskideak interes guti aurkitzen ziolako eta krimaren hori gertatu zelako, berezi zirenean Ivan Cain Adamovitch nekatua, apurtua, hustua zen. Mozkorra ez zen orduetan Gregory Corsok zion : «*lurrean ehortzi ondoan adiskide beharrik ba ote da ?*»

Ingurumena bete zuen ixiltasun elkortzalean, Ivan Cain Adamovitch belar lehortu meta baten gainean gelditu zen. Pentsamendu hitsak baztertzen saiatu zen. Baina ezin : beti itxura berdina jiten zitzaion burura, burumuineko arroila odoleztatuak urez hantzera. Gizakumea bakartia zen, eta beste gizakumee-kin juntatzera bortxatua baldin bazen arrazoi politiko, ekonomiko eta sentimentalen gatik zen. Azkenean bizitza komedia bat zitzaion, bizitza bukatzen zuen heriotz madarikatu hura lasaiki ihardokitzeko...

Anaia (Abel) eta maitea labanaz xitxifrikatu zituen mementotik goiti Ivan Cain Adamovitchek ez zuen heriotzaren beldurrik. Hor, belar meta lehortuaren gainean jarririk, goseak hilik eta askatasun sentimentu paregabeaz aserik, heriotza sakonki desiratzen zuen. Historia zaharreko zuhurren eran, hunkika, haritz sendoaren malda xerkatu zuen, bakartasun eta ixiltasun dorpeegi hortan, hiltzeko leku egokiena hautatzeko. Konturatu zen, gizakumeak bizitzeaz arta material asko bilatzen zuenean, heriotzaz axola guti zuela. Heriotzaren kalitatea bizitzaren kalitatean oinharritzen zen Ivan Cain Adamovitchen ustez. Konprenitzen zuen ere gizakumeak zergatik hainbeste lotuak ziren elkarren arteko harreman higatzalei...

Eskuz haritzaren azal bihurria ezagutu zuen, eta bi besoez inguraturik etengabeki musukatu zuen larru sufritu hori. Etzan zen. Ixiltasunean, bere hatsaren soinu ahul monokordea entzuten zuen. Menturaz lokartu zen. Dena dela denbora asko iragan zitzaion eta pentsamendu lerro guzieren edukina bera ahan-tzi zuen. Erotasunaren, ez izate krudelaren muga kritikoan zagon. Besteak bezala Ivan Cain Adamovitch errendituko zen gauaren jujamendu luze eta tiranikoa-ri. Orroitzeko ahala galtzen ari zen...

Hurbileko arbolaren brankan txori baten kantua aditu zuela iduritu zitzaion. Asmaketa balizkakoetan barna jausten zela pentsatu zuen espiritu razional horrek ? Bai, segidan lokuman sartu zen. Egun argiz bete ametsak egiten zituen, txori abesti minkorrek, uhin mugimendu betikoak, arpegiak, irri karkarak, loreak eta frutuak... Delirean barna bazoan...

Deliraten ez osoki ordea : sortaldetik, gaua haizaten zuen aire urdin emea altxatu zen. Bisaiari aire horren fereka gozoa sendi zezakeen Ivan Cain Adamovitchek. Gero arboletako hosto eihartuak, enbor ustelduetako harrak, txoriak, ibaietako ur hormatuak bizitzen hasi ziren. Esnatzen, iratzartzen. Ivan Cain Adamovitch pozik zegoen. Espejo zuen hainbat burutazioen ondotik, gizakume askok egun sentiaren lehen xixtak beren gorputz mutuetan sendituko zituztela.

Hirurogei ta hamargarren eguna egiazko eguna izan zen. Eguzkia bere argian errege jeiki zen, eta ar-raioekin harpe ilunetako harriak bezala lotan ziraute-nak berotu zituen. Orduan, alegantziaren minetan, Ivan Cain Adamovitchek azken hatsa lurrari eskaini zion...

Itxaro BORDA.



TXINAKO POESIAZ

Kublai Khan mongolaren aurrean Marco Polo makurtzen ikusi genuenean, bihotzean ximiko bat bezala senditu genuen : beti berak dira faborisatuak ! Eta atzetik ez gelditzeko, hamalau urtetan, auzo «gorri» batzuek prestatu MAO TSE TOUNG'en Liburua irakurtu genuen, proletarioen poesia, ederra, hunkigarria. YANG TSE KIANG ibai horiaren ertzeetan 1949an gertatu zen iraultzaz amets egiten hasi ginen. Asiaren maitasun horrek ez gaitu utzi geroztik... Maitasuna ? Bueno, ilusioa, edo utopia...

Poesia, hasera haseran, edozein motetako elizetako otoitz kartsuak moldatzeko artea zen. Funtsean, zer da gaurko poesia, sobera teoriarik gabe egina baldin bada behintzat, otoitz bat. Ezer ez gehiago. Luzaz zuhurren esku egon da poesia hori. Konplaxentzia zozialez, zuhurrak zirelakoan, lanik ez zuten egiten... Geroxeago, poesia korteetako ongi ikasien menera joan zen : errege, buruzagi, tirano, diktatore etab... Garai hori XIX.mendearen bukaeran zen, demokraziaren etortzearekin jende frangok irakurtzen eta idazten ikasi zutenean.

Txinan gauza bera gertatu da 1949 urtetik at : Errepublika Popularrak eskolak sortu zituen, eta guk gaur eskaintzen dizkizuegun poeta gehienak 1950aren inguruan jaiotak dira. Manera hortan, gaiak eta idatz ohiturak aldatu dira, Txinako poesia ez da menturaz mandarinen arropen menpean izkribatzen zen hura. BAI JUYI eta LI PO beren mendi urdinekin, beren loreekin eta itsasoekin aspalditik ahan-tziak dira. Txinako poeta gazteek bizitzen duten ingurumen bortitza deskribatzen digute : pobrezia, analfabetismoa, sortzen diren nesken hiltzeak, eta oroz gainera iraultza kulturala (1965 - 66).

Iduri luke, iraultza kultural horrek hausdura bat egin duela intelektualen buruetan : asko dira itzuli ditugun poetetan hiritik baserrietara lanera bortxaz igorriak izan direnak, bai eta ere gobernatzen zuen klaseko jendeen idealak partikatzen ez zituztelako kartzelatuak eta torturatuak izan direnak. Adibidez Zhou Jiadi, torturapean bista galdu eta «*injustizia baten aurka*» idazten ari da... Gainera, gehienak lan egiten duten poetak dira, ez europar bezala idaztetik bizitzen direnak. Baina egoera hori aldaketa handi bat da Txinan, pentsatzen badugu betidanik idazleak eta poetak gobernatzaileek hazten zituztela... Badira halere, gobernu popularrak hazten dituenak, idazle

MARCO POLO EZ HAIZ BAKARRIK

(Txinako poesigintza berriaz abisu)

ofizialak, «*idazle ofizialen batasunean*» bil-
duak : Bian Zhilin, Bai jin (Pa Kin) etab...
Gazteek, ofizialak ez diren idazleentzat,
beste batasun bat kreatu dute «*izarrak*» ize-
narekin, eta Yan Liren zuzendaritzapean.
Bestalde, Txinako probintzia bakoitzak
estadoak finantziatu literatur aldizkariak
baditu, eta bistan dena ofizialetaz aparte
marginalizatuak diren batzu, hala nola beti
Yan Lik kudeaturik «*Gaur egun*» ...

Literatura lekukotasun bat den heinean,
gustatzen zaigu alde batetik itzuli ditugun
poeten hitzetan idealizatzen eta amesten du-
gun Txina zabal eta jendetsu horren aurki-
tzea, eta bestetik jakitea gizarte asko bezala,
Txinako gizartea gizarte gogorra, bortitza,
koertziboa dela, komunismoa estadoko erli-
jionetzat eraikirik ere. Badakizue, gure aldiz-
karian, teorian bederen, begi onez ikusten
dugu komunismoa (edo nik ikusten dut).
Voila, mundu guzian mugimendu kulturalak
berdinak dira, bi partetan banaturik dabilta :
zaharrak / gazteak, ofizialak / marginalisa-
tuak. Dena, idatzi edo itzulpen, miraila joko
bat da. Ez dugu guk ere eredu horri ihes egi-
terik...

Hala ere Txinako mendien eta ingurume-
nen berdetasuna jastatzen dugu, gure herrikoa
jastatzen dukegun bezala ; Txinako lainoak,
lanbroak, elurak, ibaiak, jendeak... Eta hori
oro Marco Polok egin zuen ibilaldia noizbait
eginen dugula amestuz.

Shu Liyen

Itxaro BORDA.

TAO YUAN MING (365 - 427)

*sasipean urrelorreak biltzen ari naizela
mendi urrutiak ikusten ditut.*

LI T'AI PO (701 - 763)

nostalgia

*obe aurrean ilargi betea dago
lurak izotz zuriz jantzia dirudi.
burua altxatzen dut ilargiari sogiteko
apaltzen dudanean sor berriari pentsatzen dut.*

mendian

*eskatzen didate zergatik mendi orlegian bizi naizen.
irriz, ixiltzen naiz, bibotza bakean,
loreak erortzen direnean
ura iragaiten denean
nere mundua ez da gebiango gizonena.*

merkantariaren atsegina

*txoriek bedoietan baino
batz gutiago uxten duen
baize zerutierra hartzen du
itsasoko ibiltariak
bere untzia herrialde urrunetara
eramateko.*

QUAN (722 - 780)

*kantua ixildu da, nebor :
ibai gainean gailur urdinak.*


BAI JUYI (772 - 846)

*gauaren erdian etorri eta
egunsentian joan
lore ez den lorea
laino ez den lainoa
instant bat udaberriko ametsa bezala etorria,
batzik utzi gabe goizeko usama bezala joana.*

BIAN ZHILIN (1910)

*zubigainean, inguruari begira zaude
balkoinean norbait dago inguruari so
eta zuri so.*

*ilargiak zure leihoa edertzen du
eta zuk
beste baten ametsak koloreztatzen dituzu.*



LAO TZEU (J.K. baino lehenagoko III. mendekoa)

Tao-Te-King (bidea eta bertutea)
22

*plega zaite osorik gelditzeko
konkor zaite zuzendua izateko
huts zaite bete zaitzaten
bigatua gaztetuko dute
guti ukan zazu, guti horrek frutuak emanen ditu
asko baldin baduzu asko bori galduko duzu
zuburrak kreatura guzietan BAKUNA besarkatzen du
eredu bat bilakatzen da
ez du bere burua erakusten eta*

*horregatik disdiratzen du
ez du bere burua justifikatzen eta
horregatik goratzen dute
ez du bere burua laudatzen*

*bere onerako arraketak
gordetzen ditu eta
horregatik jarraitzen du
ez badu etsairik bilatzen ez du etsairik
erran zabarra : plega zaite osorik gelditzeko
ez debaldezko hitza
osorik geldi zaite eta dena zuretzat izango da.*



huriaren kanta

*bedoi, zuri ezin ditekek
bire griseria.
euritakoa irek dezagun
zerua betikoz gordetzeko.*

*gauaren ixuri gozoetan
bide zebatzik ez duten
bi izar pare
urrun edo burbil, aldizka.*

GU CHENG

Anderseni

*sable mugikorren urreak
bire ipuiak estali ditu
negar eta jakingabearen irriekin
ni ere bai.*

*sinesten dut
bihi bakoitzak
bizia emateko
lurperatua izan bebar duela.*

*itzuliko naizenean
ilea eta betainak elurra bezain zuri
ukanen ditut
eta mortutik
mundu orlegi bat altxatuko da.*

*nire kanta lasaia
lore eta izarrintz artean
abestera etorriko naiz,
orduak baurzaroko emozio galduak
berrituko eskuratuko ditut .*

GU CHENG.

AI QING (CANTON)

berde

*denetan berdea
tinta berdez bete botoila bat bustu bailitza*

*nora nabi joanik, bainbeste berde mota ikusten da
berde sakon, berde altzeiru, berde samur,
urdin berde, berde nahasi, berde kalziko...
berde izatearen bortxaz beltz
berde izatearen bortxaz arrotz.*

*ufatzen duen haizea berdea da
ixurtzen ari den euria berdea da
errekan dabilan ura berdea da
eguzki printzak ere berdeak dira.*

*berde guziak biltzen
metatzen
bata besteaz bazten
eta abilki kurutzatzen dira.*

*bat-batean baize kolpeaz
dantza-urrats ordenatua bezala
berdeak juntatzen dira
neurrian elkarrekin itzulikatzen.*

EGUZKIAREN HIRIKO ORROIMENAK

BEI DAO (1949, Pekin)

*bizi
eguzkia ere jeikitzen da.
maitasunaz
lasaitasun
abate basak iragaiten dira
lur garbi, mortu
euriaren soinu da espazioa
euriaren gatz
askatasuna,
baurraren
paper puskatuaren zatiak
airatzen dira
itsaso osoa sartu da marrazkian
eta plegatzen denean antzera zuria da
neska gaztea,
ortzadarra ikaratzen da eta
began doan txoriaren luma multikoloreak
ebasten ditu,
lerdentasunaren
ubin gorrian igeri dabilan arraun bakartiak.
lana
lurra tinkatzen duen eskua
bake
enperadorea bil zen lekuan
harma zabarra zutitu da
berdetua, piztua
aberriaren ezinduaren mako biburtua,
artearen museoko horma ilunean zurkaizturik
zaintaularen brontzean urtua da,
miliarka eguzki eder
populuaren ispilu hautsian,
ilargi apurtuen bibi argidunak
zeruan eta lurrean ereinak
destinuaren eraginik gabe,
baurrak mekanikoki xebela jotzen du
xebelak gaua mekanikoki jotzen du
sinetsi
artaldea mendi orlegirantz doa
artzainak flautaz are monokordoa ematen du
bizitza.
arrantzalearen sarea.*



BEI DAO

ATZO ZEN...

*oibanen beldurra ere gordez
zure besoaz arpegia erdi gorde zenuen,
emeki emeki begiak hetsi zenituen :
atzo zen...*

*zure duda bulta ere tindatuz
masusekin bedoiak gauez tindatu zenituen,
buruz bai erran zenuen, iri galgarri :
atzo zen...*

*gure bi bibotzen artean altxatzeko
itzal beltzean mitxari su eman zenion
zure espain xuriak ausiki zenituen :
atzo zen...*

*paperezko untzi abandonatuak errekan
gure leben promesak zeramazkin
gogorki desbideratu zinen :
atzo zen.*



urmael zerutiar.

amodiozko deklarazio,
sumendi zartatze,
lasaitasun desesperatua
zerua eta lurra ikarazi duen burrunbaren ondotik ;
desesperatzea ez da etsitzea,
emozio sakonak biltzen diren esmeraldaz bantu urmaela.

bere ubargitasuna agertuz
sakona bain sakona
esmeraldaz bantu urmaela
kristal uhargia.

zorakerizugarrez zartatzeak
emozio sakona eta lasaia baizik ez dit utzi.

uhargitasun, ikusten zaituen soaren argiak
bibotzaren uhargia zilatzen du.
maite ote duzu, maite ote duzu ?
lasaitasun hau, kiltasun hau nola jasan ?

zergatik dire nere begiak bustiak ?
urmael zerutiar, zure bibotzaren lasaitasunarekin
nola zainduko dut nere lasaitasuna ?

ZHOU LIANGPEI (Pekin)

LEI SHUYAN (Pekin)

Sufrantza

oinbutsik noa
oinarrizko magmatik nator
sumendien ixuri errekorretan eta
elur bormatuen loditasunean barna.

goldea lauzkatzen den eran
mundua tiratzen dut.
nere espaldan, ildo sakonak irekiz,
sokak banan bana hausten dira.

sufrantza tiratzen dut,
ez jakintza tiratzen dut
zibilizaziorantz noa.
butsuneak zangopilatuz
abuldu gabe urratsez-urrats
erortzen eta zutitzen naiz.

begi ezkinetan izerdi eta malko
lebortu ezinak darizkit.
aintzira ikusi ote duzue ? O aintzira
nere sufrikarioen biltokia...

JIANG HE (Pekin, 1950)

Amaitu gabeko poema bat

1. historia zaharra

kartzelako hormari itzatua naiz,
denbora beltza sakontzen doa
beleak
taldeka biltzen dira,
munduko zoko guzietarik
banan bana
biltzeraino
sardeskatzen dituzte
horma alde hortako heroeak.
heroen sufrantza
mendiak baino bakarti diren
barri bilakatzen da,
heroeak kurutzefikatuak dira
bide bat ireki nabi dutelako,
kreatu nabi dutelako,
beren arrazari karatera bat ematearren.
haizeak bigatzen eta
euriak bortizki bustitzen ditu
horman berabeki altxatzen diren irudiak,
beso, esku, edo arpegi apurtuak,
azoteen euripean
nere anaien eskuak
xixtatuak, irentsiak, beltzak.
eta nere arbasoek
pizuki lan dagite,
horman sartzen dira
ixilean metatzeko :
nere aldia da
koleraz jantzirik esklabo destinu borren
aurka abiatzeko,
nere heriotz gogorak
hormak zikiñtzen dituzten lobiak
jauts araziko ditu,
ixilean bi diren guziak
zuti ditezen eta
oibu egin dezaten...

2. martiria

neska hilgo dute,
ama naiz
harmen muturra nigana dator
eguzki beltza
nigana
harmen muturra egarriz kraskatu
lurrean dabil
haritz zabarra naiz
eri lehortua naiz
arpegietan lotzen diren ximurrak
eta lurak jasaiten dituen kalamitate berak
naiz
bibotza lurrera aurdikia da
nere alabaren odolak
lurra ziliportatzen du,
beroki
nere alabaren negar gaziak
mateletan ixurtzen zaizkit,
bat bestearen ondotik hormatzen
eta kantatzetik gelditzen diren
neguko ibaiak dira.
abizpak, alabak, emazteak naiz
nere arropa funditua da, nere ileak itzulikan
erortzen zaizkit,
ez dira hostoak
uhinen loreak arkaitzetan hausten dira
ileak itsaso ditut
aitak, senarrak, semeak naiz
nere esku erraldoiek ilearen itsasoa
mugiarazten dute,
haien loturak kraskatzen entzuten ditut
untzia naiz
oihan deserrotua
basaki bersortzen den oihana.

3. exekuzio kortean

haize gezurtiak leihoak eta
begiak tapatzen ditu
masakrea bidean doa.
ez nitake ate atzean gorde
nere odolak ezin du
ez eta ere goiztirietako haurrek.
kartzelan sartu naute
eskuak loturik, burdinak banketan
haragia sakonki ausiki didate,
azoteak eta odolak nere gorputzean
sare gogor bat ehaintzen dute,
abotsa bautsia dut
bibotza sutan daukat
ixilean nere espainetan erretzen ari da
bibotza
eta exekuzio korterantz noa
eta mesprexuz historiaren gau honi
munduaren zoko honi begiratzen diot.
besterik egin ezinean
zerua hautatu dut
exekutatua izan bebar dut
bestela
ilunak ez dira gordetzen abalko,

ilunetan sortua naiz
argi bila noa
hil behar dutena naiz
bestela
gezurrak bautsiko dira
guzien aurka naiz
argiak jasan ez ditzazkeena
ixiltasuna barne.
bortxaz ekarri gizon tropa,
disdiraz debekatu jendetza beltza
mila urteetan suplizioan kantuz aritu
diren guzia naiz ;
nere exekuzio propioa ikusten dut
nere gorputza
olatu olatu
odolez hustua dakust.





YAN LI (1954, Pekin)

kantua

zerua behera dago
bizkar bezurrari lotzeraino
zoaz
ongi ezagutzen duzun
bide ilun bori
zure sor berrikoa da
zapeta pare horrekin
zoaz
egunsentiaz janzteko.

onddo

nork sinets
lezake
egoerarik beltzenean
bizitzarik ez dela ?
enbor ustela
itzalean
esperantzetan dago.

semea dragoia izan bedi.

bilen ezagutza eginikan
nere kontzientziak
apalik sakonena
irekitzen du,
baina hilek oibu dagite
ibardoki ezinean,
baina heriotza bilatzen dut
nere beldurretaz damutzen naiz
lotan sartu aurretik pastillak
bartu behar hortaz damutzen naiz

entzungo duenari diot
zintzurrean min dut
ezin dut kantatu...

XIAO FAN (Shanghai)

barri oiban...

barri oiban ixil
ixiltasun oiban...
forma arrotz bakoitzak
arima bat gordetzen du :
zeruari begira
edo behakor
pentsakor
edo ametsetan galdua...
barri multzo
zenbat iraultzek
zaituztete lasaitasun hortan sartu.

barri oiban

denboraren gautik bonat
bainbat gertakari ezagutu dituzu
zenbat kalamitate ez ote duzu jasan :
lurraren larru mugimendu
itsaso hondo altxatze
aireko barri erortze, lur jauste
kuskatze
tinkatze
apurtze
goititze...
banaka zauri itsusiz josiak diren
barri horiek lur ezkin hau bautatu dute
bemen
bake laburraz gozatzeko.

barri oiban ixil

ixiltasun oiban...
borroka ilunek markatu zure gorputza
orain argi eta libre dago :
esku traketsetan ezarri
tortura tresna zorrotza zinen,
hona lur azalean altxatua zarela.
ibiltarien amets lasaiak edertzen dituzu
pausatzen denari gorputza sustengatzen diozu,
argazki baten atzekaldea zara ;

lur zoragarri hau maita arazten diguzu
bizitza koloratu hau maita arazten diguzu...
ezer ez bazenu idurikatzen bezala
oh barri oiban ixil
ixiltasun oiban...

harrizko itsaso bandian sartzen naiz
ixilik barri oibanean zutitzen naiz
barri nadila, barrietan barri
oh
barri oiban ixil
ixiltasun oiban...

ZHOU JIADI (Guizhou)

injustizia baten aurka

*nere bibotzaren berinan
bainbeste izar disdirant bazen,
nere arimaren sakoncan baziren
ur garbiak eta argiak.*

*baina estudiatzea laket zitzaidan
jende gazteek maite dituzten liburuak irakurtzea,
zibla bat bilakatu naiz
erori naiz, bibotza lurraren usainei nabasirik.*

*trenputxartu naiz, mandilek izarrak ebatsi dizkidate
bide esnetsuan bi malkotan aldatuz
iratzartu naizenean ob nere ur sakonak !
nere ur sakonak agortuak ziren.*

*ez zizkidaten menotak ezarri
baina kartzela ilun batetara aurdiki ninduten
bibotzaren argiaz baizik ez nezakeen
bizitzaren bide luzea ezagut.*

*prokuradore laguna ager zazue injustizia bori
aberriaren lurra nere auzitegia izango da,
nere izatea auzigai geratuko da
eta bezurratz biburtzen banaiz
bibar arkeologoek lurretik aterako naute.*



YAN MING

gau izarti

*eror, eror dedila gaua
bedoiak, baiiek, ortzaizean gordetzen dira.*

*lotan, lotan daude bedoiak
baizeak, barek, bere tresna jotzen du.*

*laino arin bustiak
emeki bedoiak inguratzen ditu.*

*eta oibal fin urdinak
izar disdiratsua lotzen.*

*jasminpean nago jarriarik
izar irri egilei begira.*

*eta izarrak milaka daude zeruan, ob
bedoien loari beba...*

GU CHONG (Gu Cheng'en aita)

*o itsaso maita nezazu
mendi goretarantz nindoalarik
pentsatu nituen hitz bauek.*

*arka bat bezala konkortua den olatuaren inagalean
dudak eta galderak baizik ez nituen
ur ttanta bakoitzak, momentuan,
eguzki sartzea banditzen zuela...*

SHU TING (Shanghai)

1952an sortu emakume bat da Shu Ting.



Egia da orduan

idurika nezakezu,

*zareko bibia erein dezadan, idurika
erle galduak etxera bil ditzadan, idurika
tortxak eta argizaiolak lantegietan, herrietan
untzietan pitz ditzazten, idurika
leibo disdiratsuak edo ilunak irakur ditzadan edo
gaueko eta eguneko arimekin mintzatzea utz dezadan, idurika
printzipio bandiak kantu bibur ditezen, idurika
eguzkiak maitasuna bero dezan, idurika
eta Bide Esnetsua gugana etor dedin, idurika
oraindik pazienki idurikatu nabi nauzu
fidelitatearen barko ttikia eraikiz...*

Egia da orduan

ez zarela bat-batean ideiaz aldatuko

nere eskuak hotzikarez gaunditzen badira ere

eta mateletarik arrosak ibes bazoak it,

nere flautak odola baizik ez badu ufatzen ere

eta elur hormatuak ondorioz urtzen ez badira,

azotea bizkarrean baldin badut eta nere aurrera

bultzatzen badut ere,

gauek egunsentia baino leben iresten banaute ere

eta lurrarekin batera hausten banaiz

maitasunaren txori mezularia ibes egitera ezin uzteraino

bala ere zure idurikatze eta fidelitatea

nere sakrifizioaren sari izango dira.

Oram

nere gainera tiratzera utz zkitzu,

zuregana etortzeko

gaitzeko eremuak trebeskatu nabi ditut emeki

zureganatzeko

haizeak nere ile bareatuak altxatuko ditu

eta zure lorea izango naiz euri bormatuetan.

SHU TING

beldur ote zara ?

zure gorputzeko jantziak ixilean desegiten ditut

bai beldur naiz

baina ez dizut erranen zertaz.

zoriontsu ote zara ?

burua altxatzean izarrek multxoan inguratzen naute

bai zoriontsu naiz

baina ez dizut erranen zergatik.

maite ote duzu ?

ixilean hasperen dagit

bai maite dut

baina ez dizut erranen nor...

HE JIMMING

banbuzko txapela

*labanak disdiratzen du
ilargi bat konkortzen da
bariak luzatzen doaz
bedoi taldea.
loretan dagon arbol aurrean
neskak, pozez, txapela ebaintzen du.*

*belar hostoak bata besteari
kontu askorekin lotuak dira,
bari luzeak, luzeak tinkatuz
kurutzatzen dira.
neskaren bamar behatzek
emozio gordea iruten dute.*

*hamar urte euri eta botz,
banbuzko txapela gogoan naukan,
egun euritsuaren kontra,
botz handiagoen geriza.
orain nere eskual libro dira :
nabiko nuke egun bakar batean
hamar urteko txapela ebaindu.*

*goizeko lanoak zirurikan
gaueko lanoak borrobilkan.
pobreziaren erroak kendu nabi ditut
aberastasun bitzaz jabetu nabi naiz.
esperantzak, nola ilargiaren konkortasunak,
nere eskua gidatzen duela
errondatzen du banbuzko txapela.*



13 ideograma hauen zerrendaren
errian nahia da :

« HAIN URRUTI ETA HAIN LUZEA
IZANIKAN ERE HAINOKO BIDEA,
LUR HUNTAN HAREN BILA
LEHATUKO NAIZ »

Qu Yuan-eko «Lisao»tik
(JK baino 5 mende lehenago)

SZE TO LAP-en kaligrafia bat.

LIN HENGTAI (Taiwan)

20.lana

*zila zazue sakonago beltza da
zila zazue sakonago gaua da
zila zazue sakonago barnea da*

*argitik itzuli gara
egunetik itzuli gara
kanpotik itzuli gara*

*zila zazue sakonago atsedena da
zila zazue sakonago sentimendua da
zila zazue sakonago ni da*

*bizitzatik itzuli gara
arrazo metik itzuli gara
jendetzatik itzuli gara.*

46.lana

*lur zuriarekin lan dagit
eta zeta beltzez janzten zara*

*errauts zuriarekin ikuzten dut
eta krema beltzekin makillatzen zara*

*bitz zuriekin kantatzen dut
eta bitz beltzekin ibardesten didazu.*

LUO GENGYE (Anhui)

seskazko geziak

*nabi nituzke zure beginar biletara
izar kartsuak botatu,
nabi nuke zure bibotz mortura
esperantzazko mezua igorri.*



KINATAR

ZUHUR BILAKATU BURREGOIA

Inperadore-Zuzenak Burrego-Lehenari galdatzen dio : «Zenbat buru motz dezazkek safre ukaldi bakar? Harek errepostu : «Hiru». Inperadore-Zuzenak Burrego-Bigarrenari galdere bera egiten dio. Harek errepostu : «Lau». Burrego-Hirugarrenaren errepostua : «Mila». Inperadore-Zuzenak : «Hea, ikusteko». Eta mila presuner lerrokarazten ditu belauniko. Burrego-Hirugarrenak safrea huxtuz igortzen du airez aire itzulian, eta lau buru baizik ez mozten. Inperadore-Zuzenak : «Haizen beزالako gezurtia, orroitzeko zigorra emanen daiat». Burrego-Hirugarrenak apalik agurtzen du bere nausia, eta erran-zahar hau ahozkatzen : «Safrea eskuetan dukalarik, balentria egizak heure indarraz, gezurra bada ere, eta ahoxabalek sinetsiko haute» Inperadore-Zuzena orroitu zen mila presuner lerroan belaunikaraztea manatu zuela, eta Burrego-Hirugarrena bere gorteko Zuhurren mailarat altxatu zuen.

GIZON HILTZAILE URRIKITUA

Egun zirrintan gizon bat burregoaren etxera doa, eta atean jorik, galdatzen dio lepoa motz dezon bereala, krima ikaragarriak egin dituelakotz. Lo zagon burregoak esker txarra egiten dio, zergatik iratzartu duen hoin goizik, lepoa mozten diela, bai, hertzainek arrastatu gaixtakeri, bainan ez argia gabe ohetik ateratzera heldu zaionari. Gizon goiztiarrari galdatzen dio : «Zer krima egin duk ba?» Besteak errepostu : eginaren eginaz ahantziak dituela. «Holetan, burua lepoaren muturrean utziko daiat, delako krimak, hain segur, ametsak baitituk, hire gogoan hatzik ere utzi ez dutenaz geroz.»

Badoa gizona, berea gogoan. Biharamun goiz oskorrian heldu da berriz, eta burregoa haikarazirik, bere zakutik hamar bat buru burustan husten du ate aintzinera : «Horra gau huntako ene lana. Ametsak direa horiek?» «Ez, alafe, bainan ez daiat leporik moztuko hiriko hertzainek arrastatzen ez hauteno. Hail ! erakuts hire balentria heieri. Otoiztuko ditut ene gana lagunt haitzaten.» Gizonak : «Ez da holakorik izanen, buru hauk hertzainenak baitira.»

IPUIN

Marcel ETCHEHANDY



ARRABOTS EGILEA

Musikaria zinbala jo ta jo ari da, eta haurrak metaka heldu zaizkio ingurura. Haurrentzat arrabotsa, zer goxoa ! Han zabilan Zuhur bat gelditzen da, musikariari eta haurreri so, gogoetatua : jendeak zergatik maite du arrabotsa ? Zuhurrak galde hori egiten dio zinbala jotzetik gelditu musikariari. Hunek paper bat emaiten dio, Zuhurrak hartan irakurtzen baitu : «Zure eleak ez ditut entzuten, arrabotsa eginaren eginaz elkortua bainaiz. Ixiltasuna ene erresuma da .» Zuhurrak bere buruarekin : «Egia ez diat sekulan ezagutuko, jendeak arrabotsa zergatik maite duen sekulan ez diat jakinen, hura gehienik maite duena elkortzen denaz geroz.»

JELOSKORRAREN ZIGORRA

Mendi zokoan emazte batek bi haur, biritxiak, ukan zituen. Gauza haundirik ez baitaki, izitzen da : oihanerat egurketa joana duen bere senar jeloskorrak ez ote du makil ukaldika umatuko ? Emazte gaixoak bere baitan egiten du : «Xehatuko nau, usteko baitu beste gizon batekin ibili naizela, bi haur ukan ditudanaz geroz.» Haurretarik bat oihanera derama, eta han bere gisa uzten. Emazte xahar batek haur utzia biltzen du eta altxatzen.

Bi haurrak tarrotu ziren. Egun batez senar jeloskorrak bi putikoak egur biltzen ikusten ditu, bat bestea ganik ez hain urrun. Bere baitan egiten du : «Nik begiak samur diat, ala zer ? Batek semea ezker ikusten diak, eta besteak eskuin.» Gogoetak eginik, erabakitzen du semea erdian duela. Badoa. Badoa. Orduz geroz bere haurraren ondotik dabil, eta ez du sekulan aurkitzen. Hori gizon jeloskorren zigorra.



UNTZI SALTZAILEA

Untzi saltzailea bideko harri kozkorrean behaztopatu da, eta zarea lurrerat erori zaio. Gopor, kikera eta gaineratiko untzeria guzia hautsia du. Puskak biltzen ditu, eta hirian sarturik, bere aintzinean hedatzen. Erosleek beren baitan egiten dute : «Horrek burua galdua dik.» Halere gizon aberats bat gelditzen da, puska-muska horiek erosi behar dituela. Orduan untzi saltzaileak biziki kario galdegiten dio. Gizon aberatsak baietz. Hirian zurru-murruak ala dira : eroslea ala saltzailea da eroena ?

Hamar egunen buruan, merkatari berak untzi hautsiak hedatzen ditu berriz, bere aintzinean, eta gizon aberats berak erosten dizkio izariz kanpoko prezioan. Hantik hamar egunen buruan gauza bera gertaturik, hiriko merkatari guziek beren unziak oro xehatzen dituzte eta puskek salgai ezartzen.

Hola zen gizon aberatsa aberatsagotu, etxazpi guzia gopor, kikera eta untzi eder berriez beterik baitzaukan, eta deus gabe gelditu ziren merkatariari saldu baitzizkien, ontsa baino hobeki pagaraziz. Orduetik Inperio Haundi osoan erran-zaharrak dio : «Untzi hautsiak erosten dituenaren etxazpian zer den jakin behar da beti.»

OILOA NORK IRATZARTZEN ZUEN

Oilarrak laboraria ez du iratzartu. Laborariak oilarrari bereak erraiten dizkio. Oilarrak errepostu : «Ene oiloa jan dautak-eta.» Laboraria bere bizarrari tira ta tira : ez du konprenitzen. Oilarrak : «Ene oiloak iratzartzen nindian.» Laboraria bere bizarrari tira ahala tira : «Bainan nork iratzartzen zaukan oiloa ?» Oilarrak : «Ez zakoat sekulan galdegin.» Laborariak bere bizarra errotik ateraz : «To, ehaiz biziki kuriosa, hi.» Oilarrak : «Eta hi biziki kuriosa izan ote haiz ? Galdegin ote dautak nork iratzartzen ninduen ? Hik bezala egiten nian, eta orai, ene oiloa hil eta jan dukanetik, hire galdearen erreposturik ez diaguk ukanen.»

Marcel ETCHEHANDY

*Urdinaren ametsa, botzez beztitua
Gora dakar iparrak, ezin aurkitua.*

*Ametsaren urdina, opari egina
Hegoak ixurtzen du eskuen adina.*

*Sareratu nabi dut, igeri balaki,
Jabetzeko dizkiot begalak ebaki.*

*Urdinaren ametsa zeruan dabila,
Ametsaren urdina lurrean da bila.*

*Urzapala dabila nonbait herraturik
Bere laguna baitu herrian galdurik.*

*Urdina zilaturik, amets bat gutiago
Askatasuna hil dut eta triste nago.*

SAGARROIA

SEME BATEN OTOITZA

*Zutik mintzo nitzaizu, boneta buruan
Beldur ez lotsa barik, errespetu haundiz
Aitaso judua lez, fermu liburuan
Zure baurra naizela ez abantzi nabiz.*

*Biziaren ordari zenbat eman dizut
Apez eta serora, saildu, apezpiku
Zure zerbitzuko denek utzi naute
Hemen nago bakarrik, herrian arlote.*

*Zure amore gatik onartu dut oro
Nagusien azpiko egonez umila.
Arbasoen kemena laster duket bila
Ondorea galdurik, ezin dut baboro.*

*Zure seme naizenaz, ez nuzu nor nabi
Lur hau da sakratua besteak bezainbat
Herri orok bezala hartze du musu bat
Erresumen artetik ezin naute babi.*

*Asko zor dizudala ez dut ukatuko
Gauza bakar bat dizut arren eskatuko :
Populu bat naizela herri bunen jabe
Zure mutilen ganik entzun nabi nuke.*

*Begia zobardi,
Mutturra usnari,
Ttapa ttapa dabila
Ikertzaile trebea
Bere altxorren bila
Sagar erroi ernea.*

*Josteko tresna baten orratza bezala
Zeru lurren barrena gorputz, arinetan
Zuhurtziaren josle tai gabe dabila
Izpiritu xorrotza ikertze lanetan.*

*Zenbaitek uste duke zorrotza zarela
Radarren hesia da urrundik horrela.*

*Eta iduri luke, ziztax borobila,
Sagar erroi sotila, egiaren bila.*

*Onda laburrez dir dir, antenaz betea,
Gure batasunaren dendari trebea,*

*Sagarroia bezala Lafitte joan zera
Aberri berriaren betiko jostera.*

barik : gabe.
Lez : bezala
Kemena : kalipua, energia
Ondorea : l'héritage.

DEAN MORIARTYREN ORROIMENEZ

bat-batean loreak
this land is my land
from california to new york island.

1979eko udan
transpacific railwaysko
tren historikoak
Denver'etik Friscoe'ra eraman ninduen.
sait lake cityko lur gorrietan
iragana ehortzi nuen ehortzi.

Uthe leinuko indio alkoholak erréa
uranio meategiak naturita colorado
eta munduko baratzean sartu baino lehen
heriotzaren meneko dagon basamortua.
ostatuetan
bruce springsteen'en
born to run berria entzun zitekeen.
greeting from asbury park new jersey, love
North beach'en
dean moriarty ezagutu nuen
you've got IT
okey
son of bitch !

1979eko udan
beti eskatzen zidaten
hea ez ote nintzen a mexican girl
nestlez ase blonden
artean ni ilez eta larruz
beltza arras black...

the american way of death !
ginsberg, ferlinghetti, corso
burroughs, kerouac, andersen
on the road bierra merkeak edaten
mozkortu arte mozkorrous life
eta extasis orduan

jazz clubeko mahain zikinduetan
jainkoa aipatzen duten poemak idazten.

bat-batean loreak
this land is my land :
john fitzgerald kennedy aireportuan
beldurtzen ninduen geroari pentsatuz
negar egin nuen,
this land is my land
from santagrazi to izaro island !

bat-batean loreak
okey
sekula ez nuen Grand Junctionetik itzuli behar.
dean moriartyren orroimenez...

Itxaro BORDA.



EH

eh
felipe
felipe uriarte
zergatik joan zare
manaslura neri erran gabe ?
sherpa ona izan nindekeen...
okabe
eta ehujarre
ditut anartean
jabe,
izturitzeko harpeak labe,
herriko artadiak habe :
zergatik joan zare
manaslura
neri erran gabe...

Uztailak 28an muskilditik etxerakoan.

MAHIZ

artoherri
gure herri zabal :
ertameriketako
mahiz jainkosa
udaro
izerditan
ederki ohoratzen dugu.
artoherri
gure herri hustu :
hemen
bizidun baino
artozango berde
gehiago dago.
artoherri
gure herri galdu :
hemengoak
jadanik
euskalduntzat
ez dauzkate.
alta
artoherri
gure herri galdu
hustu
zabal...



artoherri
gure herri urre :
iraztorrak eta xarak gorritzen direnean
haize hego hatsetan
artozango kiskailduak
esperantza uzten ez duenaren abesti
minkorra
kantatzen dute.

eta artoburu zurituen
xurikin beroen artetik
bihi horiak galduaz
hustuaz
zabalaz
haurdun gelditzen dira...
artoherri luze
amikuze

Itxaro BORDA.

MAIATZ. 29

IPARRAGIRRERI

Itxaro BURDA.

bihotzak ahal balu
ortzaizea lau haizeetarik
mendiz eta tradizio zaharrez
mugatua duen herrialde hau
utziko luke zalu...
bihotzak ahal balu
basamortu lehorrenera eraman
lezakeen lehen trena
hartuko luke...

baina urretxuko bardo sufritua
bihotzak zer dezake
burua eta sabela erabiltzen den
garaj honetan...
bihotzak ez dio : «zoaz euskal herrira !»
bihotza muturik dago.
gaizo iparragirre !

1985eko agorrilan

KANIBALISMOA

gizartearen konplaxentziaz baizik
ez da poeta existitzen.
poeta izaten eta ukaiten da
herri baten sentimendu faltsuenak
idilikoena
bizarazten dituelakoan :
tristezia
maitasunezko penak
klase/aberri borrokak
naturaren aldaketak (beti txarrak)
sineste zahar galduak
minabletan minableena da herriko poeta :
gezurtia
beldurtia
helguraz hantua
artifiziala
onhartua da
gizartearen akatsak
oro
kristalizatzen dituen neurrian.
azkenean ez du behar sakon batek idaztera bultzatzen :
konplizitate hilkorrak
zoizatearen joko krudelak
xoilik gidatzen ditu poetaren urratsak.
azkenean poeta kanibalerik handiena da
bere biziaz baino gehiago
besteen bizi ondar ustelduetaz hazten baita.
eskoletan ikasi eta segituan pratikan ezarri
teoria poetiko sofistikatuen junglan
zintzotasun guti agertzen da.
nik hiru poeta zintzo kondatzen ditut
ez dut erranen zein
nere sekretua da
kanibalek irentsi artean...

nola saldu zenuten maradona napoleskoei ?
 bartzako gorri-urdirak sailkapenean behera
 doaz, eta baloia mediteraneoko urez hanturik
 txoria bailitza, airean iheska dabil airean

nou campeko futbol zelaian luis llachek
 partida arras zaila bi tantoz irabazi zuen
 bakarrik pianoaren hasperenekin deiadarka
 ehun mila personeri t'estimo ooo erranez


geroxeago bartzelonako barrio txinon lehen
 tiroak entzun ziren, anarkistek hiria erre
 zuten, oldar zaharren hildo madarikatuan
 ribasek victoria hitza erein zuen kolorez

itsasoak aldiz baretasun eztiar jendeen arpegi
 lehortuak uholde ezin sinetsizkoan ferekatu
 zituen, neskatxak negarrez hasi ziren negarrez
 mutilek tarradellasen memoria blasfematzen zutela

xurxuriak haize epelak plega arazi zituen eta
 luis llachek t'estimo abestu zuen haizeari,
 ibaiari, mendiari, catalunyari t'estimo oooooo...

1985eko uztailan.

Itxaro BORDA.



«Tom Simpson ziklistarekin akordatzen al zarete inoiz ? Nola asfisiatu zen Aubisque mendian gora, nola bere elastikoak axedrez taula apurtu bat zirudien karreteraren barri txintzarretan»

Bernardo Atxaga (Reducciones)

Frantziako erresumak bere txulo nazionala den Hinaulten garraipena ospatzen duen garaiean, pentsa dezagun pixkat Tapie eta amerikanoen dolarrek kontaminatua etzuten Tour'aren denbora heroiko haiei. Gure gartzaroan zerbait zen, orain kasik ezerez ! Nostalgiaz bete hitzak lerrokatzen ari gara hemen... Zilegi bekigu noizean behin nostalgikoak izatea.

1967 : zortzi urte doidoia kunplituak genituen, eta bi urte lehenago pariseko osabak erregalatu irrati zaharrea Churchill Londresko lehoiaren herioa ikasi genuen. Ordu haietan, auzo baten hiltzeak pena gehiago sortuko zigun. Beatles'ak urpeko horian bazabiltzan, Rolling Stones'ak honky tonk blue eman zizoten deiadarka, eta Dylanek kitarra akustika elektrikarentzat saldua zuen. Gogoratzen garez, garai handiak ziren !

1968an mundua, gazteen mundua zartatu zen ; etxean azukre eskasez kafesnea motel motelik edaten usatu ginen. Burrasoek eta adinekoek «gerla zibila» zela zioten. Eskolara ez joatearekin, «gerla zibilaren» ideia hori aski gustukoa genuen, geroztik nostalgiarekin (bis) gelditu gara. Baina ez gara hemen plantatu gure hauraroko orroitzapenen kondatzeko. Ez... Dugun xedea da, aldi batentzat bederen, literatura eta kiroia lotzea da, Bernardo Atxagak eskaintzen digun estakuruarekin (agaz).

Problema non dago ? Bernardo Atxagak historia trahitzen du Tom Simpson ziklista «Aubisque» mendian hil zela Ruper Ordorikari kanta arazten diolarik. Frantziako iraultzalariek Louis XVI. burua erdiz baizik etzioleta moztu, edo Marshall plan amerikanoak europaren okupazio militar eta ekonomikoa-ri hasera ematen ziola ahanztea paso, baina Tom Simpson «Aubisque»n zendu zelako hori ezin dugu onhar. Jakin arren egiak benetan ez duela funtsezko inportantziarik, eta egia bera baino interesgarriago dela egiaren aitzakia hona beraz egia...

Frantziako itzulia (tour'a) 1903an hasi zen egiten, eta lehen garrailea Maurice Garin agitu zen. Geroztik, mila eta mila tipok beren izenak Garin delakoarenaren ondotik jarri dituzte : besteak beste, Petit-Breton, Bottechia, Bartali, Coppi, Bobet, Koblet, Anquetil, Gaul, Bahamontes, Gimondi, Janssen, Merckx, Ocaña, Van Impe, Thevenet, Zoetemelk, Hinault, Fignon... Amerikanoak (Lemond, Shapiro) etziren oraino sortuak, Ingles gutti zagon partizipanteetan (Simpson, Hoban, gaur egun : Kelly, Roche...) eta naski, Frantziako itzulia europa zaharreko nazio

Auskalo

Tom Simpson



ospetsuen artean moldatzen zen zelebrazioa : Belgika, Italia, Frantzia, eta Espainia...

Ordu haietan zinez gogorra zen turra : bizikletak arruntak, pizuak, bideak txarrak lohiz eta tifosi latinoz beteak, porturik gorenak programan : adibidez, Galibier (2644 m), Puymorens (1 915 m), Isoard (1 987 m), Peyresourde (1 563 m), Aspin (1 480 m), Tourmalet (2 113 m), Aubisque (1 710 m) eta Puy de Dome (1 475 m). bai, mail hortan ere denak aldatu dira, gainera Baiona-Paue bidealdi memorablea kendu zuten, Izpegin 1978an gertatua gatik. Nostalgia (ter) koropilatzen gaitu. Dena dela, datorren txirrindulari sasoiari buruz «Maiatz» batasuna prest dago talde baten sponsorizatzeke. Dirua badugu, nahikoa, kultur etxeari eskatu gabe, hamar bat profesional guaporen hazteko...

Gatozen gure gaira : Tom Simpson, ingeles fair play man delakoa, uztailaren 13an, 1967an, ostiralearekin, VENTOUX mendian «asfixiatu» zen, hamahirugarren bidaldian hain zuzen, arratsaldeko hamahiruetan. Ez ote zaizue iduritzen sorte gaitzeko 13 zenbaki gehiegi aurkitzen dela historio honetan ? Fatum ! Uztailaren 13 hartan, beraz, usaian baino beroago zегien Provence aldean. Txirridulariak, trikot horia Pigeon'ok zeukala, Marseilletik abiatu ziren, han ricard xorta bat edanik, eta Mariusen azken txixtea entzunik, oi jinkua ze berua, ifernua iduri izi hemen,... Izerditan nago. Kursari taldearen begi aurrean Ventoux mendi erreko harriak agertu ziren, bururik gabeko bihurtuneak, malda gora ezin jasanak etab., turreko mitologian ohizkoak diren itxurak zerrenda genezazke, ez bagenu tipo bat zigizagaka pena-doloretan hatsantua lurrera erortzekotan ikusten. Lastima : baina, Tom Simpson da... Kono leher egiten du, holako arpegi zuri eta begi bihurriek ez dute gauz onik anuntziazten... Hona, Tom Simpson harri erreetan etzana, segitzaleek eta Tour'eko medikuek arranimatu nahi dutena, debalde orde, gizaizoa hila da, bai zendua, azken hatsa hor utzi du, berriro diogu gizaizoa, oraino hobe lizateke ohean hiltzea, ez horrela potretik eta sakramendurik gabe ! Dena dela,


Carpentrasera, uztailaren 13 madarikatu hartan anbulentzi txixtulariak hiltz bat ekarri zuen. Historio hau ederra eta patetikoa zaizue ez ?

Londresko apartamendu batean, telebixtan, Tom Simpsonen emazteak berria jakin zuelarik negarrez erran zuen : «segur nintzen, segur nintzen sotoan apailatzen zituen tisana deabru haiek etziotela ondorio politik emanen, zenbat aldiz ez nion otoiztu LSD hura hartzeari utz ziezon...». Biharamonean emazte alargundua beltzez jantzi zen...

Frantziako itzulian bizia sakrifikatu zuen lehen eta azken gizona izan zen Tom Simpson. Guk, nahiko genuke, bixtan dena, kirol guzietan Heyselen bezala gertatzen balitz : Torino, s 38 hiltz-Liverpool, O hiltz. Futbol partida interesgarria, luzaz komenta ditekeena...

Horra ba, bueno, bueno, egia erretablitua dugu : Tom Simpson Ventoux mendian asfixiatu eban. Irakurleak zerbait ikasi badu hobe, hastean bezain zozo gelditu baldin bada auskalo Tommee !

ELIDEKO IFITOS.



GENETIKA :

Iparraldean idazle edo zeozerren sortzaila izatea bitxikeria bat da, inglesek nonsense deituko luketen zerbait. Alde batetik jendez hustu herrialde bat delakoan (gerlak, imigratioa...) eta bestetik ez baita idaztearen tradizio laikorik. Apezek, eta apez horiekin batera seminario berdinetan hezi notableek (abokatu, mediku...) altxatu dituzte idazlearen eta orobat idazkinaren eredu ezin hunkiak. Errealitatea onhartuz, behar bada konturatzen gara oraingoan egin ditugun kritikak debaldezkoak direla. Barka diezagutela !

1. Literatura klase baten ontasuna


Apezek eta notableek, eskolatuenak zirelakoan, alfabetisatuak, hiru hizkuntzetan gutxienez (latina, frantsesa eta euskara) hartu dituzte literaturaren giderrak. Hauek ziren ere Europa zaharra inharrosten zituzten ideietaz informatuenak. Beren astekarien edo aldizkarien bitartez arrotz jakitate horren alde sinplifikatuak eskaini dituzte beren iduriko irakurle.

Eta 1545etik hasten bagara 1965eraino izenak eta obren tituluak kondatzen, beti konstante bera ikusten dugu : DETXEPARE, AXULAR, LEIZARRAGA, ETXEBERRI etab. Denak Elizaren (Katolikoaren edo Erreformatuaren) zerbitzari leialak ditugu. Zerbitzari bezala literatura elizkoia moldatu dute : ongi bizitzeko eta ongi hiltzeko liburuak, Jesus krixtoaren imitazioak, Manuel debozinezkoak... LEIZARRAGA-z aparte, beste guzietan Eliza zuzenaren eta konkerantaren ideologi zapaltzaleak zekarkizten : mila bekatu, ehun mila debeku, garbitasuna, nik dakita zer gehiago...

Urte asko horietan, eta gure minabletasunean kontsideratzen dugu apalki agertuak izan diren obren testuak euskara ederrean emanak zirela, literatura boluntarista, funtzionala egin da. Lehenik, hau bistakoa da, hamazazpigarren mendean gertatu zen protestanten oldar landerosari ihardespenez azkar bat proposatzeko. Frantziako literaturan gauza bera gertatu zen garai berdinean, edo pixkat lehentxeago.

Karia hortara beraz, apezak gero eta kementsuago euskaraz idazten hasten dira katolizismoaren eta frantses errege katolikoaren alde bermatuz. Literatura inguruko giro zozio-politikotik baztertu nahi dutenak engainatzen dira... Gero, fedearen sustatzeko eta zutik atxikitzeke euskara erabili behar zen, hizkuntza hori baitzen «herri» anafalbetoak ezagutzen zuen mintzaira bakarra. Bi mendez, gaur egun arte, notableen arrazoinamendua haxe izan da : euskaldunek fededunak izan behar dute, euskaldunek euskara baizik ez dute konprenitzen, orduan fedea euskaraz ikas araziko dugu eta ondorioz euskara kuttunki zainduko.

EREDU LITERARIOEN TRANSMIZIOA IPAR EUSKAL HERRIAN




ITXARO BORDA

Gure denbora hauetan Elizako eginbideak erderaz ematen dira herri gehienetan, horrek frogatzen baitu instituzio horren klientela aldatu delakoan Jainkoaren zerbitzariak ere beren ohitura linguistikoak errez kanbiatu dituztela... Azkenik erran dezagun, sinetsiko ez bagaituzue berdin zaigu, apezek eta notableen klase jakintsunak parte handia duela deseuskalduntze prozesusean, eskola publikoak eta telebixtak baino sakonagoa. Euskara ahal bezain hobeki espezializatu dute erlijioaren eta laborantzaren alorrean, ustez eta egoera hori eternala zen. Gizarte nekezaria desagertu denean, horrekin batera elizak hustu direnean euskararen hiltzearen kondizioak apailatuak ziren... Euskara izan da estakuru bat, aitzaki bat : euskara euskaldunek berek hiltzen dute, ez menturaz egunero mintzatzen dutenek, baina euskara idealizatzen eta gauzatzen duten «gure» jakintsunek... Ordea kulpak beti guregain ezartzen saiatzen dira.

2. Literatur- Inpertsionalaren erdia...

Oharpen hau mentalitatearen aztertze interesanta iduritzen zaigu : autoreak izengoitien atzean gordetzen dira. Zenbat etsenplu eman genezake hemen, adibidez «han zena», «nehor», «so egilea», «zerbitzari», «xabier gazteiz», «daniel arberu» etab. luzea... Izen goiti edo ezizen horiek bi funtzio dauzkate : bat, publiko zabalari idazlea gerizatzea ; bi, joera elitista baten oinarriak dira : idazleen adiskideek eta hurbileko lagunak ongi bada-kite nork zer izkribatu duen (baina gure arteko sekretu iniatikoa da). Beren deiturak itzalean atxikitzen badituzte (modestia falt-sua edo publiko ezezagunaren beldurra ?), sendi ditzazketen sendimenduak ere bazter-tzen dituzte. Ez gorrotorik, ez maitasunik ezer ez dute agertzen. Gizonki mintzo dira, aitoren seme propioak direlakoan, pertsona normalak ez ditezke euskararen zerbitzari jarritz geroz... Hitz hitz, errespetua lehen, gizona gizon eta apezak azken hitza... Ipar-aldeko idazleak supergizakumeak dira, eta gu hastetik ideia hortara kondizionatuak gara. Euskal kulturaren mobidan sartzen garen puntutik harat...

Erran hau zenbat aldiz ez ote dugu entzuna ? «*euskara garbia erabili behar da !*». Ez diogu euskara, beste hizkuntzak bezala, nola nahika idazten dela, barneko legeak errespetatzen dizkiogu guk ere, baina garbitasun konzeptu honek gatu edo arratoi asko hazten ditu. Apez eta notable klase alfabeti-satu horrek prediku erlijioso edo politikoe-tan erabiltzen duen euskara garbia da. Fun-tsean gorago qenion eran klase horietako pertsonak eskola berdinetan heziak dira :



Uztaritzeko edo Larresoroko seminarioetan... Hortarako XIX. eta XX. mendean euskara normalizatu dute beren ereduen eta helburu hurbilen arabera : gozatu, garbitu, legundu, sailndutu, ruralizatu. Egoera hortan blokatu-rik daude. Euskara idealizatu hori jadanik, aspalditik naski, ez da «herriak» mintzatu duena. Gero eta zilatzenago den leize ikara-garri horretan dago koxka, oxka...

Nota bene bien : nolaz ez du euskara normalizatu elitista horrek zabaldua zozial gehiagorik ukan ? Hiru arrazoin aintzina-tzen ditugu :

— **bat** : apezek eta notableek gogo guti zuketzen beren izate zoziala finkatzen zuen euskararen transmititzeko. Klase borroka-ren elementu kulturala da hau.

— **bi** : boterearen gudu horren aurrean, euskaldun arruntek konfientzia galdu dute beren hizkuntzaren baitan, denbora berean euskararen balio ekonomikoari interesik ez zuten ematen. Hemen daukagu herri oso bat bere oinarritzko nortasunean elitek kulpabilizatu eta kulpabilizatzen dutena.

— **hiru** : azken hogeit urte hauetan sortu den abertzaleen klase politikoak erderaz espresatzearen bortxaz, ez baitu hizkuntza berririk eraiki. Gainera 1968-an 20 urte zute-nek ez dute literaturaren eredurik altxatu eta liburu bat kometitu dutenean, eredu za-harren arabera lan egin dute. Guk orain, ez dugu atiratzen gaituen eredu literario dinami-korik. Hor bada zerbait euskal gizarte aber-tzalean ongi funtzionatu ez duena...

— **gerorako** : baserritarren eta apez-notableen euskara desagertzen ari da (alde batetik hobe) baina hirietan ikastoletarik eta gau-eskoletarik indartzen den euskara berria (izpiritu freskoarekin) suerte bat izango da literaturarentzat, eta orokorki euskal kulturarentzat. Zergatik ez euskal gizartearentzat.

3. Eredu literario horien transmisioa.

Betik diogu iparraldean literatura erranahi modernoan ez dela sekulan egin. Alta asko idatzi da : artikuluak, astekarietan, saioak, ikerketak, idazle zaharrei buruzko ikerketak, itzulpenak... Erakaspen frango zeukaten idazki ederrak, jakintsunek dokumentu exotikotzat erabil ditzazketenak. Inportantzi guti ematen zaie fikziozko nobelei eta herrikoia ez den poesiari. Orroitzen gara LAFITTE kalondea 1964 urteetan zehar «igela» errebistari eta Arestiren poesi berriari igortzen zizkien piko gordinetaz. Eboluzioak manatzen zuen bide horri zintzoki eta gogorki ez ihardetsi die orduko intelektualek. Bertsolaritza aldiz apezkratek hobekien kontrolatu eta zuzendu duten alorra da. Krata nazkagarri hauek idazten dute Jainkoa goresteko, herria laudatzeko eta euskarā salbatzeko. Ez xoilki idazteko... Inkapazitatea intolerentziaren lehen urratsa da.

Hainbeste mendez metatu jakitate hori transmititu behar da. Transmisioa podere bat da, meneko duten kontrolatzeko indar handia. Normalean, eraiki dituzten ereduak eternalak dira, betikoak, beren fedea bezala funtsean. Burua erakusten duten gazteetan, aspalditik brexan direnek, beren ondokoak hautatzen dituzte, esponsorizatzen, ko-optatzen. Ko-optatze hori eginez geroz patriarkak segur daude ez dela beren sineste eta eruedetan desbideratzerik gertatuko. Haseran hautatu tipook (gutitan emakumeek) ardiesten duten laguntza moralaz eskertzen iragaiten dute bizia : «**nik hainbat zor diot hari !**» ka ari dira... Dependentsia lasaiak sortzen dira eta idazlearen, kulturgizonaren inguruan armiarma sare handia iruten zaio. Orohar erueden duplikatzea indar kontrolatzelearen duplikatzea da...

Ko-optatzearen sintomorik nabariena kritika da. Honen kriterioak ongi ezagutzen ditugu : errespetua, garbitasuna, edertasuna. Euskaren mugidan sartu aristokrata zaldun horiek besterik kontsiderā ote dezakete ? Beti lagunak, adiskideen artean egiten dira kulturaren zelebraziorik handienak. Kritikak laudatzeko moldatzen dira, laudatzea baita errespetatzea eta elitaren barnean onhartu zarelako marka. Baina objektibitate apur bat erakusteko kritikak, arras manikeanoak, linguistikaren arloan jartzen dituzte : euskara txarra / ederra, sintaxia zuzena / okerra... Elizan ikasi mundua bitan mozte hortarik ezin mugi, ezin kanti...

Kontua ez da non nahitik (batez ere hutsetik) literaturaren eredu laikoak eta independenteak sortzea, bakarrik inguruko ideologiak buruan sartu dizkigun eskema faltsu edo ilusigarrietarik ateratzea. Elita horren diskursoek on baino txar gehiago ekartzen digute, kultural bizia artifiziaiki hantzen digutelarik. Ez gara osoki sistemaren aurka, baina nahi genuke alternatiba diferentak onhartuak balire. Badira ederki huts egin ditugun treinak : tanpis...

Eta guk segitzen dugu euskaraz idazten erakaspen gutirekin baina ahalik eta fantasia gehienarekin...



AÑARROSA 6

(AZKEN ZATIA)

MIKEL DUPAK

BAIONA

Konduak egin beharrak ote dira? Behar bada. Neure traidokeriak ez horren huts egiteak ez ninduten gehiago kezkatzen, debalde ibili izan nintzenez gero.

Agian ez zen izanen Añarrosarentzako hobi ederragorik nere biziko heldu ziren egun eta gau horiek guztiak baino.

Baionara itzuli nintzen urte batzuren ondotik, herria berriz aurkitzearen bihotz pilpira iragan eta, familiakoak berriz atxematearen dohasuna pasatu eta, Baionako sal-erosleen basa-oihanean nere ohatzea egitearen kezka itzali eta, aurkitu nuen neure Añarrosazko orroit-urrikiak bigarren epe batetan sartuak zitzaizkidala. Urrikiaren mindura kamustua zen, orroitzapenak deitzean emetasun haundia sentitzen nuen.

Egun batez, ontsa nahiz naski, arreba Margaitaz mintzatu zitzaidan. Izan ere, arreba emaztegai nuen orduan. Puskak apailatzen ari zen eta ezkontzatikako zorion-itxaropenak besteak ezkondu eta deus ez zekielarik izigarriki dohakabeak asmatzen zituen jende bakar guztiak araberatzeko karrá emana zion. Hala jakin nuen, nire gazte-kideetatiko bat ezkondu eta, alargundu laister izan zela eta aitamekin bizitzeko itzuli zela. Etxe zahar ospetsua ongi ezagutzen nuen.

Arrebak : «Bisita egin behar diozu, Manex !»

Mintzo zelarik, gogoeta bitxi batekin neure buruan zalapartaka ari nintzen : Añarrosaren orrazeak Margaitarena deitu zidan. Beste aldera zergatik ez ?

Arratsean berean Margaita ikusteko joan nintzen. Bozkario aharraiz hartu ninduten aita-amek.

Xarmanta zen Margaita, leporaino ximenki hetsitako arropa beltz dentela xurizko ipuradunarekin. Bainan nun noiz eta nola deabru atxeman ahal izan nian haren eta Añarrosaren aurpegiaren arteko antze bihi tlikienik ? Okaziatua eta furiosa nengoan.

Alabainan gaizok hain lañoki, hainbeste maitagarritasunez linburtzen ninduten ! Hainbeste atseginekin ederretsi zidaten ! Bere goibeldura ofizialeatik gaindi bere begiak baliazten hain errebesa zen Margaita bera ! Mintzatu beharrean, haur-denbora orroitarazi nien. Margaita bi aldiz karkailatu eta, nardamendurik bezala, krik eta krak ixildu zen. Burrasoen behako kexua atzeman nuen. Hiruen gogo-asmoetan liburu batetan bezala irakurtzen nuen :

«NAHI AHAL DUZU, ...
MANEX MAITEA, ...
NAHI BADUZU, ...
HEMENDIK HURBIL DAGOEN
AINTZIRA BATETARAINO
ELKARREKIN JOAN
BAGINTEZ
ZORIONTSUENAK
GINTEZKE...»

EZ NITUEN GEHIAGO IKUSIKO
EZ HAREN GORPUTZ HUNKIGARRIA
EZ HAREN AURPEGIA
EZ HAREN BEGI ZABALEGIAK
EZ BETESPAL BAZTER HEZEAK
EZ NINI BELTZ-BELTZAK
EZ BEGI-XURI UBEL-URDINXKAK...

NITUELA ORAINO IKUSIKO
HAREN GORPUTZ HUNKIGARRIA
HAREN AURPEGIA
HAREN BEGI ZABALEGIAK
BETESPAL BAZTER HEZEAK
NINI BELTZ-BELTZAK
ETA BEGI-XURI UBEL-URDINXKAK ?

AURPEGIRIK EZ
BEGI ZABALEGIRIK EZ
BETESPAL BAZTER HEZERIK EZ
NINI BELTZ-BELTZIK EZ
BEGI-XURI UBEL-URDINXKARIK EZ

NEURE GOGOANTZAN BAIZIK EZ !

**MANEX ELIXONDO GOAZEN BADA GEURE
AINTZIRA HARTARA
ZORIONTSUA IZANEN NAUK
BALDIN NAHI BADUT MANEX
BALDIN NAHI BADUK
ELKARREKIN JOAN BAGINTEZ**

«Alaitasun honi gaitzetsiko ote dioke ?»
«Ezkont-nahia gogora helduko ahal zaio ? Bai,
horixe gure gaixo xumearentzako zoriona !»
«Maiteko ahal niaun ! Ezkonduko ahal
niaun !»

Zertako gogor egin ? Ezteiak oso laño
izanagatik ere, bi familiak, aspaldiko adiskideak i-
zanki, ezin alaiago zeuden... Nik berriz, ez nion
gorputz pollit pottoloxe honen perekatzeari gait-
zesten ! Ezta Margaitaren irriñoa, Margaitaren mai-
nak, Margaitaren zurikeriak egunean hogeai aldiz
topatzeari ere...

**BESTEAK BEZALA EZ HENGOELA
BANIEKIAN MANEX ELIXONDO**

Beharrik nire emazteak ez du nortasun haun-
dirik eta aski zaio nagipen alferra. Beste batek, er-
neagoak, lele gutiagoak, menturaz, Añarrosaren
orroitzapena gal ziezadakeen, noizik behin bihoz-
dura zoratuarekin baizik bihurtzen ez gatzazkien
asmu iduri pilan sar ziezadakeen.

Margaita aldiz itzali zitzaidan.

**NEURE LEPO-GIBELEAN HAREN BESOA
NEURE BELARRIETAN HAREN HATS
BAHITUA**

Gostuan, debotki, izigarriki, Añarrosarentza-
ko adorazionea artatzen ahal izan nuen. Huts bat
bizkitartean egin nuen : Luzaz ezagutu izan nuen
bi aurpegien arteko antzak setiatu, Margaitaren
barrandan nengoen. Haren ilunduratik, haren loal-
dietetatik, atez ate haren orrazearen erdi-ikustetik,
dohastasunez hartuko nindukeen uste gabeko ager-
pena igurikatzen nuen. Behin ere ez nuen ardietsi.
Haatik, emeki-emeki, nire entseguei esker naski,
Añarrosaren aurpegia Margaitarenaren inguruan
karatoxa gaizki lotu bat bezala ñir-ñir-ka higitzen
hasi zitzaidan. Hura honen irriñoetatik ageri zen,
edo honen ilun-aldietetatik, hala-hola sortzen...

HAREN BEGIETAKO ARGI ILUNA

Margaita ordu horietan haztoratzen zuten
nire zoramendu-oldeek. Nik aldiz, ez nituen kon-
prenitzen jukutria itsusi horien irriskuak. Eta egun
batez, jin zitzaidan helgaitza. Nire orroitzapenari
Margaitaren aurpegiak kutsua emana zion. Añarro-
saren egiazko aurpegia galdua zitzaiolan ! Bai eiki,
haren marrak, bat besteren ondotik berregiten,
gaean ehun aldiz itxura-mitxuratan marretzatzen
banekien ere ; bainan galdua zitzaidan Añarrosaren
hemen izaite lillura miresgarria.

Nire baitan bederen biziko da
gure herri maitatua.

Zahartzearekin, asko eta asko
irakurtu dizut, adiskide...

Neure bihotz-hunkiduretatik
bi oraintxet nahi nizuke
sentitarazi...

Eta gero, agian, neure apalkeria
uzkurdura guztiak, barkatuko
dizkidazu :

Orduan lerro hauek idatziz, ondarrak salba-
tzeari lotu natzaio. Lan hau egiteak behin baino
gehiagotan pentsa-gogoetan eman nau.

**DOLÛ GABE HILTZEN NIZ
BIZIA ZIBEROARENTAKO
EMAITEN BAITÛT
AGIAN AGIAN EGÛN BATEZ
JEIKIKO DIRA EGIAZKO
ZIBEROTARRAK
EGIAZKO EÛSKALDUNAK
TIRANO ARROTZEN OHILTZEKO
ETA GURE AITEN AITEK
ÛTZI DAIKIEN LURRAREN
POPULIARI ERREMETITZEKO**

Joaten den hemeretzigarren mende honetan
zertan den gure gaixo Euskal Herria miatzen badut,
duela hogeai urteko neure ixtorio horrek zer pen-
tsaturik daukala iduritzen zaidazu. Bere amodio
gizatasun eta guzti, ororen buruan ez ote zen Jose
xurien laguna, bai eta ere, bere erara, xurien esku-
makila ? Gaixo Jose azkenean kurutzefikatua !

Joãok berriz, gogorkeria maltzurkeria eta
guzti, ez ote zituen arrazoin hobeagoak ?

Gaurko egunean, gure bost haurrak Frantses hutsak bilakatuak zaizkidazu, eta familiako euskaltasuna haiekin galtzen ari duzu...

Agian, agian ba, egun batez, gure arteko Joâoren bat izanen duzu gure euskal ohorea xutik emateko !

Beste Zumalakarregi batzu ere, eta, ni ez bezala, nire ondokoak alde onean egonen dituzu !

ZUMALAREN IZENA
ETA HAREN OMENA
HURRUN DA HEDATZEN
HIRI ETA BASERRIETAN
NORK EZ DU ADITZEN
ZUMALAZ MINTZATZEN ?

AMAIERA.

BOSTEKO GIZONA

Añaren haurgai horri

2080-ko irailaren 13an.

Orain hasten dut journal bat. Ez dakit zertako. Geroak esango ! Eguna gogorra izan dut. Lehen aldikotz Xabier eraman dugu eskolara. Hiru urte bi hilabete guti ditu eta eskolarako denbora etorri zaio. Goizean Añak eraman du, hamai-kak eta erditan nik hartu dut etxera. Uros zen alabaina ! Hainbat hobe ! Ni omen ez nintzen hain uros eskolara lehen aldikotz joan nintzenean. Goizean hiru orduz, arratsaldean berdin, lan egitera joan gara.

Ttiki-ttikiak eskolara joan, eta 15-20 artekoak berriz bakantzetan ! Eta aurten, pila bat etorri zaigu ikustera. Gero eta arrakasta haundiagoa dugu Baskook ...

Esan behar gure «Bosteko gizon»-eko erre-serba ederrenetatik dela ! Eta uda fin honetan, giroa beti ona... Bainan lanari berriz lotzea beti neke-nekea zait ! Egunean sei orduz jo eta jo pilotan ! Egun zenbaiten buruan, hobeki joango dugu.

Publikoa ona, alabaina. Oroz gaisetarik, azken ordukoa. Haatik orduan huts gaitzenak egin ditut !

Bihar hasiko du Añak, bere dantzekin. Gauza batek urte bakoitzean bezala iluntzen nau : Publikoak beti ere galdezka zergatik hemen, Limoges ondoan, erreserba, Ixtripuaz otoi mintzo, etabar ! Alabaina, Ixtripua ez nuen nik ezagutu ! Ez eta nihoiz ez naiz Euskal Herri Zaharrera joaten ahal izan. Ba ! Zer inporta ! Orain gure lurra hemen dago, beste erreserbetan ere bai.

Egunkarietan berriz ere betiko kezka : Brus-sels-ek ez duela nahi Limoges izena Iruña bihurtzea. Bizkitartean, majoritatea guk, Nafarrok hemen !

Egun, besterik ez : Tireda naiz, eta nola !

Tzakur apaltien orhitze gisa

Josebaren ipuin berri honen titulua, orijinalean «OROITZEKO MODUA» zen. Ez da oraindik plazaratua. Txomin PEILLENek xiberotar batura egin itzulpen bat dizuetegu eskaintzen.

Mila seiehün ta hirutanhogei ta bateko Azaroaren zortzian eho die Beñat Goihenetxe Mitikileko erretora : goiz goizik eraman die ürkabeala büria eskapila beltz batez estalirik, borreüak aixkora altxa eta berhala egin du bere lana. Gero bere korpitzaren zatiak Ziberoko bide-kürütxüneetan estekatzeko manamentü bat eman da.

Mauleko XI. kronika

— 1 —

Frantses soldadoek haren aragi zatiak herrialdeko kürütxüne güzietan esteki zütien, hainbeste bide kürütxeetan nun gizon bakotx baten korpitzak ezin beitzian hainbeste aragi eman . Hura kabalekia zela erran zian norbaitek, bena ez zen ihore ere odoletara hüllantzen, ihork ez zian begikaldirik etxekiten, bestañez, betezpalak zerratzen ziren ikusi hura ere itzali nahiz. Eta beldürra hüzelaren gisa hasi zen ziberotarren bihotzetan, hüzkei aihenak bat batean eta harri güziak üngüratzez hasi beilitzan. Oldarrala jalki eta eraiki laborariak beren etxeetara ützüli ziren, beren ihitaiak baratzeko asünen ebakitzeko baizik ez zütiela erabiliko zin egirik. Artzañak beren oletara gibel jin eta zokotan gorde zütien beren makilak. Leheneko bizi molde arruntaren katea ezagünetara ützüli ziren güziak, harrizko bakeala, soldado etsalek tandaka etxalteak eta bideak kurritzen eta zaintzen zütielarik, beren zamari eihar eta beren txapel lümadünekin, soldadoak beren frantses eta biarnes eleekin ibiltzen ziren, ezpata maginatik idoki beharrik gabe.

Eta holaxek hanitx, urte hanitx igaran zen ihore ere bere bihotza berriz bilaiztü ordüko, gai ibilzalerik, berriz, agertü ordüko. Erresiñula jadanik hogei aldiz heltü zen bedatsean, xiberotarrak beren aitunen seme ta apezküpien kuntre oldartü zirenaz geroztik, osto beltzak ordükotz hogei aldiz ziren teiütü beltzez estali büria, zürkatxik gabe erori zenaz geroztik, kontatü nahi deiziedan gertakaria agitü arte. Hogei urte joanik Orhi gaineala hogei aldiz elür berria lehenagoko oldarpen hura gogoe-tan zen orano, hatzamanik dian hüzelaz harria orhitzen den gisa bihotza tinkatzez eta ahatze nahiz. Ez zen kantoren gela gerla galdü hura, ez zen ezpañ osagarridünetan sortü, bortietan aran egin eta ibarretan behera hedatzen diren ahaidetan agertzen ; beldürak mihia zian gogortzen, beharri traidoreek josten zütien ezpañak.

Eta barantailako, bai otsailako arrestiri batez Oloroeko merkatuala jin bi gazte, bata eskiularra, bestea barkoxtarra, ostatu batetara sartu ziren ebia ater zedin haiduru, ebia emeki ari beitzen... lantzerra... gero gibelilakoan utzülbidea alkarrekin eginen zielakoan.

— *Cap de bascou ! eüskaldünak !* erran zien botz latzezko gizon mozkorrek, *lous mainats de bascou que venden la antzera per crompa lou xerri.*

Mahañian jarri bezañ sarri, armadako arropa zirzill zikinez bezi gizon hura hüllantü zeien, bera ere zahar zen, zur gatülü bat esku batean besteaz bizar urdintü bat iresten ari. Bi xiberotar gazteek arrenküra amiñi bat senditü zien, soldado zahar hura ondoan jarri zeinean, bena jarririk eta bere bizarra ordükoz xuritiak denbora ederragoak eza-gütü zütiala salatzen zian.

— *Dio biban ! que soy estat vint anys soldat de França, Ziberoko lürretan,* erraiten zian besoa ezpañen aitzinean tzurdunpaz ari. *Dab aquest pluye que besoan min dü. Hil de puta ! que ibor ez da mobitü, ez igitü. Que ü en la eseka, que tots sun estecats.*

Erdi bearnesez erdi eüskaraz begiak nirnir, edari ttantta zombait bizarraren artean txirristaz.

— *Eta Beñat Goibenetxe* —zian, ahapeka motikoengana hüllantüz *aquest voste Matalas, noun le mataren pas en plaço que mataren outro gouyat. Han nindagon ni eta badakit Matalas preson-tegi beltzenean ezarri ziela, aci Hil de pic ! Mauleko gaztelü bortan.*

Soldado zaharrak bere eskü zabalaz tapatü zian basoa, ordükoz hütsik zena zerratiaren keniarekin entelegaraztez.


— *Matalas hil zien Lextarreko plazan,* erran zian barkoxtar gazteak, *jente banitx izan ümen züzün jakile, büria moztü zioienean.*

— *Bena ez, baren lagün bat, en plaço,* errepikatü zian soldado zaharrak, *apez hura —zeren apez a omen zen— oldarpenaz dolütüko zela esparantxa zien gobernariak : azkenean aitunen seme ta elizaren abeltegiala ützüliko zela esparantxa zien. Ez zekien.*

Ez zakitela ta ez zakitela eta erri egiten zian karkazaz gizon zaharrak. Bera Mauleko gaztelü hartan begirari egonik, añiketa armada ützirik eta bazakiala oranoko bizirik zela gizon bat presu-gela hersi eta ülhünian, ülhünenian. Atertü zen kanpoan, arte batentako bederen, ezinegona beitzian egünaldiak. Bi gazteek beren zarpak har eta adio erran zioien soldado zaharrari.

— *Han dago Ene fedea !* erran zeien berak, bortatik kanpo soatzalarik, *Mauleko gaztelü kanbera barnatsüenean sartü zien eta ban dago orano, bortapean ützen diren janariak, jaten beitätü !*

Motikoak etxera abiatü ziren, hiriko harri losak ostikatü lehenik, gero bide lohitsuëtan barna, ixtilak saihestez. Ateri llabürra egin zian, gero odei übelak, min zahar hurtü beharra, ebia erortera ützi zian, berriz. Bi Ziberotar motikoak zaleago ibili ziren. Lantzerrak busti zütian.



Bi motiko haiek, eskiularra ta barkoxtarra Bazko gaiherditan Mauleko gazteliala sartu ziren, begirariak ustegabeki hatzaman eta esteki zutien eta gazteluaren zolako kanberetarat heldu ziren.

Eta gizon bat ediren zien, gela batetan. Ediren zien gizon harek, xahar ahul eta mutü harek azken hatsean denaren mobimentia baizik ez zian haboro eta korpitz hilaren hatsa ; zilo hartarik idokitzean ez zen ürrats baten emaitera atrebitzen eta bizkarrean hortik jelki behar izan zien, gelatik bizkarrean Mauleko gaztelu harresietarik hurrün.

Eskiular gazteak besoetan hartu zian zamari gaineal atzirik barkoxtarra ere bere zaldiala igaitz eta ulhün nabarrean Atarratzera burüz abiatu ziren. Gaia zohardi zen, nahiz eta argizagi berriak, izarrak argitzen zien bidea eta bortu aldeko aize xuri hozkirriak berekatzen zütian, zamarien zurdak, bi gazteen atorrek eta xaharraren bizar urdina.

Haboro dena, aizeak bedatsaren lehen hedeak ekartzen zütian. Ostoen sonia xuxentzen zian, hats berria emaiten zion belarrari eta lurpeko gaiza lokartu oro laster erneko zela, amets egin liozla üdüri zian.

Zahar hura ez zen mintzo, eztarria, züntzürta ito zeion, hitz erdi bat, ele zombait eta ez zen igitzen, ez haren korpitza mobitzen zamari bizkarrean.

Ezkiular gazteak besoetan eramaiten zialarik, haren bihotz zahar eta ahularen banbak senditzen zütian, eta beso zabalagoak eta goxoagoak nahiago zütükean, agian, axolbean egoiteko. Barkoxeko motikoak beste zaldiaren gainetik begia gibel utzülzian haren begi xuri eta zabalak baizik ez zütian ikusi, bi argizagi ttipi eta izigarri, ulhünpian. Igaran zien Irabarne lauhazka ferra heotsa harrietan ; igaran zien Gotañe ; hurrüneko tzakürrek gaia zien usikiten. Eliza kantütik igaran ziren Zalgizen «Aitarren» erran gabe lurin barna, Uhaitz bazterreko kristala hur gargala entzün. Eta harresiak bazter üztez igaran zien Atarratze, laster, huraren ixurgiaz goiti, uhaitz ondoan gora, burki oihan batetara sartzeko.

Ordian baratxago joan ziren zaldiak jadanik akiturik beitzoatzan zühaintze beso beltz eta okerren petik, gero aidea hoztu zen eta argia hasten zela nabaritu zien.

Motikoek Ligiko harpe batetan ützi nahi zien xaharra gorderik, soldadoen ikertzeak igaran arte. Arropak eta janariak ekarriko zeltzioen harartino. Gordalekü hobeago bat edirenen zioien gero, etxe hun bat. Mitikileko erretoraren lehenagoko lagunen artean eta arrajintzez geroz Matalazen izenak, berriz kurritüko zütian Xiberoko ibarrak.

Bürki adarrak geroago eta beltzago ziren, zelia nabartzen zen heñian. Ligiko etxeak nabaritzen zütien, oihanetik jelkitzean, ttipi, mendien barnean loak harturik.

Eta bi gazteak, argia hel eta berhala, xaharrari so baratü ziren. Haren bilo eta bizar lüze urdintiak, haren larrü xuria, larrü telütü hura, haren zanko ezürtü hura eta bepürü lodien peko begi beti zabalik ; ulhünpetan tzmeltü lantare, ulhünpetan ützi beharrezko hura.

Txori bat kantan ari zen isiltarzünean, goiz txori ezinikusteko bat txiunta lüze eta ederra zühain baten gainetik.

Bozkario barnetsü bat senditzen zien bi gazteek beren bihotzeko zoko batetan, Beñat Goihenetxe libro beitzagoen, esparantxa berriz ere berena zielakoz. Eta tristüra hari eli bat ere senditzen zütien, bihotzeko beste zoko barnetsü batetan oropilatürrik, esparantxa zoinen ezdeusa, esparantxa azken hatsean dagoen xahar bat dela ikusi zienean eta eraman zienian.

Ligiko harpeala hel eta zamari izertüetarik jaitxi. Xaharraren hoinak ikare ziren, ortütsik iratzez busti belarra ostikatzean. Eta ordüko, ekia, baratx eta leinürü, xütitzen ari zen hegi berde heen gaineala. Xahar hura ütsü zela ohartü ziren bi gazteak, begiak zabal zabalik, begiak xuri xuri, ekiari so zagoe-lakoz, ikusten dianak so egiten ez dian antzora so.

— *Eta nun diaude gurekin borrokatü zirenak* —galtegin zian xaharrak hitzak ezin ahozkatüz—
Jakes Altzaikoa, Joanot Montori Beroritzekoa ?
Petiri Etxarrikoa. Arlande Aruekoa ?...

— *Jakes Altzaikoak Ameriketako untzia bartü ümen zizün Baionan, ziek Sorbutan gal eta berhala eta haboro ez da deus ere jakin* —erran zian barkoxtarrak — *guk ez ginizün ezagütü, entzün baizik haren aipü, bena besteak bai Joanot eta Petiri laborari diaudezü, beren etxalteetan, beren familiak bazten eta Arlande Arübekoa bil zen, bideetan amoinan eskale ibiltzen zelarik, igaran negüko hotzetan.*

Arrenküra zen xaharra, arropa ürratien pian, larrü xuria besterik ez zialarik. Larrü xuriaren pean berriz üdüri zian elürra erorten ari zeiola. Axalpetik orotan, elür lüma zaharrak metatzen zeitzola, aragian, bihotzean, züntzürrean.

— *Eta nun diaude* —mintzatü zen berriz hitzak nekez moldatüz. —*Gillen Pagolakoa, Maria Altzürükükoa, Mainer Undüraiñekoa, eta Domenixe Urdatxekoa ?*

— *Gillen Pagolakoak benta berri bat zabaltü zizün Jeruntzen eta han egoiten düzü, ardoaren erdia zerbützatzez eta beste erdia edatez.*

Erran eta erri egin zian eskiular motikoak.

— *Maria Altzürükükoa Paueko jaun batekin ezkuntü züzün, eztei handiusak eginik* —erran zian beste murrüñak —eta *Paueñ bizi ümen düzü. Eta Mainer Undüraiñekoa ? Nik ez dit ezagützen. Hikezagützen dük Paule ?*

— *Ez... izen hori, ezezagünekien ez dela aipatü bebar, erran obi diküzü ama gureak.*

— *Haren bila hor niagozu.*

— *Heben ez düzü edirenen, erran zeion haurrak, orai egünen haraintian bizi beita.*

Xaharraren maxela tzümürtiak erratzen zian ekiak, begiak zabal-zabalik.

— *Zük ez düützia betezpalak zerratzen ?* galtegin zion haurrak.

— *Ez, ez ez düzü hori ezin düüt zabaltzen.*

Eta han zieuden aihen begi, bere begi zabalegi, mihise ülünez tapatürrik, begi zabalegiak.

— *Ezpaiñetan min duzia ?*

— *Errautsa dit ezpaiñetan* —erran zian xaharrak.

Argizagiari pot emaitzez errerik zütian ezpaiñak, ala ez, karruntatü ziren, ala ez zen argizagia izan ezpaiñ zahar übelek hunki ziena, ezpada...

— *Egarri abal zira ? jauna.*

Txoritto bat ari zen berriz kantari, lehenagoko orhitgarriak ekartez, eramaitez, zilintzau ezar eta erortzen ütüz.

— *Nik ezagützen dit* —erran zian haurrak— *burak oro sortzen dütian ütürri begia.*

Korpitza desehortz litake, bena nork desehortz egünak ? Nola ütüzü ütürriala, ezpada ebi gisa ? Nola ütüzü egün zaharretara, ezpada orhitminez ?

— *Hantixek sortzen düütüzü eta baraxe ütüzül-tzen ümen düütüzü burak oro.*

— *Hürrün dea ?*

— *Bai, han hürrün.*

ZUZENTZE

43. horrialdean hasten den texto zatia, 32. lerroan «Ez... izen hori, ezezagünekien», 44. horrialdeko 20. lerroa arte, «...müga ezezagün bati buruz», sartu behar da 45. horrialdean, eskuineko zutabe-an, 10 eta 11. lerroen artean.

Joan, hurak, eskiaz lagüntü, biak berberak mündian, igarana eta heldaitina, jenterik gabeko mündian, orairik gabeko mündian, ibili, norapaitera.

— *Goazen.*

Eta belarretan gora abiatü ziren, baratx, ür-ratsak oro ostikatzez eta elestan, ele geroago eta sekretüagotan. Belarretan barna zoatzan, aizinala, goihenean zoharbian zirrin zarran zoan idi gorrien orga hura bezala, mündiaz axolatü gabe, ür-ratsik ür-rats, eskia lotürrik.

— *Ikusten dütützia, ban ardiak alatzan ari* —zion haurrak.

— *Ez bena leben ere hor egoiten zütützün eta be-re joalteen errepika entzütan dizüt.*

— *Botxe xuriak üdüri dirade mendi bizkarrean.*

Ligiko zübia igaran zien, Uhaitz bazterretik joan, oroldiz eta hüzkei ostoz harresiaren ondotik, ez beren hoifak beno zaleago, beren ür-ratsak beno hür-rüna, zoatzan müga ezezagün bati bürrüz.

— *Ez, Maider Undüraiñekoa ez..., bena Domeni-xe Urdatx Santa Grazikoa bai, Abüzki altean artzaiñ egoiten düzü, eta jei egünetan berriala jaisten düzü, koblanan aritzeko.*

Eta xahar xuria begiak zabal zabalik, herro gabeko aihena zen, zanko mehe eta okerran gaiñen. Erro gabeko korpitza, erori den baten sentimentia-reakin.

— *Jar zite, Jauna* —erran zeion barkoxtar moti-koak eta besoa lüzatü zeion jarten lagüntzeko.

Bena xaharra ez zen igitü, nahi ala ez, igitzen baldin bazen ere, aizeak iharrausi adarra bezala. Bere bihotzeko kanbera, argi misterioitsu batek argitzen zeion, urteenpeko lanhu zaharraren erditan.

— Joan behar dizügü —erran zioen gazteek xaharrari. *Harpe hontan egürüki gitzazü, arrestirila baiko arropa berri eta jatekoarekin gibel jineko gü-tützü.*

Xaharrak ez zian ihardetsi hotz hotza eta hauskor han baratü zen. Bi gazteek beren zaldi gorrietan igaiñ eta, lauhazka abiatü ziren sorhoetan behera.

Ordüko ekia süzko irandja osoa zen, belarretako ihitz kiskillak idortzez, zelü garbian igaltez, orga hür-rün bat bezala. Xaharrak ez zian deus ere ikus-ten. Belarra senditü zian hoinpeetan eta berde asmatü zian, bena lanu apaletan galdürrik, belarra eta bera, zamarien heotsa itzali eta ixiltarzüna. Belarra-ren gaiñen zagoela gogozkatü zian, ez zagoela belar-pean.

Bena pean balago, belarra ez lizatekea höbe, ber-deago ?

— V —

Gero kantore hür-rün bat entzün zian, aize xu-riak jauzkarrazirik, haur baten kantorea, agian, aide jostakari batek ekarria eta eramana. Hüllantzez horra zen kantü hura, bitrezko hura, bortü-txori lantü zaharragoaren deiez bazabilan kantü hura, eta ür-rats xügün eli bat ere hüllantzez horra ziren.

Xaharrak eskia altxatü zian. Haurrak, lürriala so zagoelarik, arranoaren itzala zela uste üken zian.

— *Aigü !* erran zeion xaharrak haurrari.

Eta ondoala hüllantü zeion haurra zoiñen begi gar-biak asmatü behar üken zütien, xaharrak.

— *Nula düzü izena, pottikoa ?* erran zeion.

— *Pettiri,* ihardetsi zion haurrak ahapatik.

Haurraren sagar gisako maxelak, ürregisako biloa, haurraren zanko arinak larrüzko abarkatto hingatü heetan.

— *Orano ez düzü bizarra egiten ?*

— *Gure etxen, aittattak eta aitak baizik ez dizie bizarrik, jauna.*

Xaharraren botza giltzarrapo erdoillatü bate-tik jeltia üdüri zian, haurrarena, aldiz, hur latsa bezaiñ berezkoa.

— *Ni... ezagützen ote naizü ?*

— *Ez bena, ... basajauna zirea ?*

Xütik zen xaharra, arrenküra eta ekiari so, eta bere kantü-kantian bilo hoillatseko haurra.

— *Nundik horra zira ?* galtegi zeion.

— *Hür-rüntik lekü ülbun batetarik.*

— *Gure aittatta, diala aspaldi Parisen egon zü-zün* —zion haurrak— *eta gai orox kontatzen dizkü-tzü bidajetako ixtoriak, zombait aldiz berri beltze-tako ixtoriak, beste behin berrialde xurikoa, ezpa-da berrialde gorrikoak...*

Txoritto baten deiak entzün ziren, botz argi, gaiza ezezagüner deiak.

— *Herrialde bakotxakbere kolorea badizü, zion, aitzina haurrak. Hau berde den bezala badirade beltzak, xuriak eta gorriak, ez dea bala ?*

— *Beharbada, bürrün... oro abal düütüzü.*

Eta herri, berde hau ere gai oroz beltzatzen zela gozkatü zian xaharrak, negü güzietan xuritzen zela, noizpait gorritü zela:

— *Zü sortü zinen lekian ere bai ?*

— *Ni sortü nintzan lekian gaia düzü beti eta jenteen beitan elürre erorten eta ez da orbitzeaz kanpo besterik egiten.*

— *Eta zeren bila jin zira buña ?* galtegin zion haurrak.

— *Ez dakit.*

Arana zen oro, gertatü eta orhitü, kontatü eta orhitü, arra konta eta aran nasaitü bat zen güzia, errepika ahülhü bat, bizitzearen iraipe nahasia.

— *Gizon baten bila jin nüzü* — erran zeion xaharrak— *hogei urteez egon nitzaio baidürü, orai beben edirenenko niala.*

— *Eta ez dea agertü ?*

— *Ezin da jiten, agian,* zion xaharrak, *entzün düzia seküllan Matalaxen izena ?*

Orhitzapenen beste gaintiko herriala.

Hürrüntü ziren bi ütürak betikotarzünen lanu apaletara.



Arrestiritan Eskiula eta Barkoxen barna ützülia egin ondoan, bi motikoak beren zamarietan arropa berri eta janari alforjarekin ützüli zirenean, ez zien harpe ondoan ihur ediren. Mauleko gaztelütik libratü gizon hura, Matalaz, xaharra, hura ez zen ageri, ez harpean, ez üngürünetan.

— *Ezin dük hürrün izaten* —erran zeion batak besteari.

Beren zaldiak estekan ütze eta haren bila hasi ziren. Aizeak, ostoak ikarazten zütian, aize harek ez zeien mezürrik entelegarazten, belarretan barna : hamar bide erakusten zeien eta bakotxik ere bilatzen zien bakuna, nun hatzaman ez.

Ligiko etxeetara ere jaitxi ziren. Han ez zien ikusi gizon zaharrik eta so lüzeak egin zeltzen gazteer. Eta, aldiz, bazen haur bat galdürrik, etxetik goizik elk'eta, bazkal ordütan ützüli ez zen bat. Aizokoek belarretan bilatzen zien, mendi altzoko tarta heetan, erreka bazterretan.

— *Pettiri ! oihukatzen ziren, Pettiri !*

Eta bi gazteak ez zien deus ere oihukatzen ezpeitzien erraiteko izenik eta haurraren bila ibiltzen zirenekin batü ziren.

Kürkülka ibiltzen ziren bele beltzak aidean, letera zahar eli baten ezkibatzen zelia, jakile.

Ikertü ziren iratzarteak, ühaitza kurritü zien gaitetik behera, ikertü zütien harpeak eta oihanak, deus ere hatzaman gabe.

Urdatxetik Atarratzera zoan artzaiñ batek erran zeien, gero, haur bat ikusi ziala xahar-xahar baten eskütik, Kakuetakoa arrollala sartzen.

Eta Kakuetari bürüz abiatü ziren. Ekia jadanik errerik, desagertzen ari zen haroa keestatürrik ütze. Hel eta arrollaren barneala harri bustien artean hurari so, aitzine ülhünari so, zolari bürüz.

— *Pettiri ! Pettiri !* oihukatzen zen eta errepika arrotzak ützültzen ziren . Itzal harrigarriak, huraren heots etengabea, itzal hersienak, gai-ainheren hegal griñatiak. Lürraren laberinto hezean, gaiaren amarain etsigarrian, aitzinara joan ziren, harriondoak oro begistatü, lantareak ere eta deus ere ez, gaia eta Lürra baizik.

— *Pettiri !* orroa latz bat egiten zian aitak, nigarra begietan. Tturritü zen amaraiñen kantian haidürü ziren añarben baketarzüna osto handien pean gorde ziren apoak makilen beldürrez, hartz bat gibekeko zankotan xütitü eta lasterka ihesegin beste ihizeak ere eraikiaraziz.

Udüri zian haurra eta xaharra lürrak iretsi zütiala, lürra den munstro ütsü eta mütiak zuiñek ez zütian begiak zabaltüko, ez zütian ezpaiñak igitüko, deuserentako.

Lasto argiekin ibili ziren, deus ere ediren gabe. Azkenean ützüli ziren, bihotzak hütsik.

Ligiko etxe batetan ixtil üllün ziren begiak eta bilo hoillatseko haurra zagoen haien ondoan. Bi gazteak ez ziren etxe hartan baratü, beren zamarietara igaiñ eta joan ziren, gaiaren beldürrez, basa bidexka bat hartü zien, Astüen gainti, llabürbidez, Montorirat bürüz eta lauhazka joan.

Etxe barnetako argia eihartzen ari zen, nuizean behin, leiho erdiroetarik. Lehenagoko gaiza batez edo herioaz mintzo zen norbait, agian. Eta ixil zedin erraiten zioien, otoitz egiteko ordü zela. Gero sütondoko kaideretan jarten ziren, sü gar torpe heier so eta orhitzen ziren gogoa epeltarzünaren zurdunpan ezartez.

Beren borta arlazetan tzakürrak, zaldün heotsak borogatzean usikitzen zien gaia.

Gero ametsetarik, askatarzüna egürükitzen ez zian jenteak, ützarriak besarkatzen zütian, neskatilek frütak urtoroz bildüko zütien, ez zauriak hersatüko, kota gorriak jauntsiko, ez beltzak.

Tzakür apaltiak otoizten, jarriko ziren. Aizea, hasperenka, erdiro güzietarik sartüko zen, eta sütondoetako errautsa eramaneke zian.

maiatz. BIRMOLDAKETA...

© Diego Maradona



baditut 4 kexto berri
Josebarentzat datorren
Maiaz - erako...




Konk problema
baditugu... luene pitz
ezadazu ARGIA!

LUCIEN
ongi hegoaldeko
irakurleak ez
ditugu galduko...



ITXARO
beinipen up!




OHILDUABI

DIOS



Zer pasatzen da ba?



ba Josebat kartzelatik
ihes egin duela goiz
honetan

ze teila
HELP

Dio!
adios ba

PERDIU




bon, larrai konsidera
dezagun asantza:
Josebat ez bada kartzelan
gehiago irakurriko maiaz,
nork leitarako gaitu bada?

birmoldaketa sakon baten
baharra senditu zuten
errebista beltzako
lau partaidetek



A★



puta kridu
zikeri hau

luenete ideia
handi bezain
mekafisika
ukar zuen bat batean:



GDAZEN
ONDOKO
OSTATURA



MENDIA




bi bock
plazer baduzu
hip hip

txak txak
Txak
o lin

Itxarok baidiz chardetai
zion, harpidedunen
lista erortzera utzi

biak horditu ziren bockaren
bockak edanaz: hips... hips



baso hustuak




WOAHO
SUPER...

badakit, andrei
Sakharovi idatziko
dugu hemendik goiti

eta bihara monean:



GENIALA ZIRA
TUMUTXA BENETAN
YAOH...



maiaz
Andrei SAKHAROV
Psycho Center
GORKI - URSS

AMAIERA
Diego END

Txomin paristarraren gogamenak Josebaren azken liburuaz.

19.orr. Bai. Aintzinatekoen pentsakeran lurra munduaren txilborra zen eta geozentrismo hori euskaldunen artean bazegoela. Barandiaran ta Satrustegik erakutsi digute . «*Otoitz txipiak*» delakoetan eguzkia ta ilargia «*lur amaren gana itzultzen*» baitira eta «*baren alabak direla*» esaten baita.

20. Oba bai ote du oba-rekin ikustekoa Zuberoko **boba** delakoak, seaska kantu hontan :

*Niña boba
lotzeko mina
jin dakizula.*

21.orr. Esperantza. Duela hogeitahamar urte J. Mirande-k gai hortaz olerki bat idatzi zuen, esperantza lore batekin erkatuz, eta nik Itxaropena izenekoa, zeinean neska bat den itxaropena.

29.orr. Limerick Orain egiten direnak erotikazkoak dira. J. Mirandek euskaraz egin zituen batzu.

30.orr. Apokalipsi. Santa Grazin hauzoko etxekandarearen ahotik, Maddi Hardoy-rengandik apokalipsi heterodoxoa bildu dut, jaso dut. Berriki Donostian, Unibertsitateak ateratu duen, etnologiazko liburuxketan agertu da kondaira hori. **Animismua Zuberoan** ed. Haranburu.

52.orr. Historia eta mitoa. «*Gizaseme modernoaren erreferentzia bilakaera historikoa da...*» diozu hau beharbada pentsatzaile eta eskolatu batzuen kasuan gertatzen da, baina etnologiazko nere iker-lanetan hirian nahiz baserrian, mito eta sineste zaharren lekuan mito ta sineste berriak sortzen ikusten ditut... sortzen eta mailegutzen ; nonbait bi milioi frantsesetik gora sekta delakoetan sartuak dira. Horoskopoa frantses aldizkari gehienetan irakur diteke eta Bibliaren lekua hartzekotan dago. Hobe da azti iragarle sorgin izatea apez baino eta «*jainko txipi*» petrikilloek sendagilek haina arrakasta daukate.

63.orr. Zuberoan eta beharbada besteetan ere esaten da **harriaz** : Harrigarri düzü. Harritü nüzü. Harria bezala lo. Harria bezala etxeki... **Gauça harri**, salaketa faltsuari zeritzaion Erdi Haroan (N.)

71.orr. Puerto de Santa Maria. 1985-ean otsailaren lehen astean Aita Lhande zuberotar euskaltzainaren bizitza irakurtzen... eta non du bere lehenbiziko apez-lekua : P.S.M.-en ; aste berean XV.mendeko hirur balada (bi zuberoraz bat nafartarrez) ikertzen ari naiz : gaia Urrutiako jaunaren eta andrearen gorabeherak eta sendi hortako alaba bat nora ezkontzen da P.S.M.-era. Geroko astean Baionan lagun batzuei brandy bat eskaintzen diet eta marka irakurtzen dudanean P.S.M.-ekoa da. Nere osaba Batistak «*la virgin 1*» esango zuen.

Ni ez naiz

74.orr. Koloreak «*munduan asko lez*» neu ere koloren azterketa egiten ibili naiz, rubio esateko hitz zaharrena Zuri da (akitanoa, XI. mendea). **ordin, urdin** (XIII. XVI. mendeetan) **hori / holi** «*orain*», batez ere **bilo hori, biho holi** azalpenetan.

83.orr. Urdin Badirudi galiaraz (galiako hizkuntzaz) ez zela kelta mintzaira zahar guzietan bezala, urdina eta berdea bereizten eta gurrean berdin. Erdi Haroan germanak Frantzian sartzerakoan hitz berri bat sartzen dute, **blau bloi bleu** idatzia eta hitz horrek **biho hori gris, urdin** esan nahi du, hain zuzen euskara zaharrean **urdin**-ek bezala. Hamahirugarren mendean Domencia Beguyurdina naski «*aux yeux bleus*» dago, baina Mikele Urdina garai berean zer da ? «*bilo urdineko*» «*begi urdineko*», grisa, urdina ala horia ? Garibay-ek garbiki dio bere arbaso bat Doña Ordina edo Urdina zela, illea, biloa hori baitzuen. Orain gauzak ez al dira garbi gris, urdin hori hitzekin ? Guk iparaldean ez darabilagu **azul** eta zuek ez duzue **blü** ulertzen.

85.arama. Kostatu zait igartzea zer deabru zen «*arama*» hori ; guretzat Zuberoan behiaren sainga luzea baita edo gure lehenagoko hartzen orroa. Uste dut ez dela zuenean **adar** hitza erabiltzen, trufaren gatik **adarra jo** esaten duzutelako ; Zuberoan gure idazleek badituzte holako hitz kutunak gaztaroako, haurtzaroko oroitzapen... nere haurtzaroko oroitzapenak frantses eta paristar hizkuntzan dira, zoritxarrez... horregatik gaur dioten bezala **branché** nago.

99. Itsasoko zerena. Behin «*Itsas lamiñari*» egin nuen olerkia, baina beharbada ifrolazko sinestuna ez bainaiz fedearen garra falta zuen.

106 Gorria euskaraz osotasunaren erabatekoaren kolorea da :

mixeria gorria

gose gorria

gorriak ikusi, baita bilus gorri pikarrai gorri ere.

117 Azkue Arrazoin duzu ikerlari horren sentzura aipatzea, nik frantseseko artikulu batean F.L.V.en egin nuen titulu estali honekin «*Méthodologie de la notation des textes basques*». Zeren batzu arrazionaltasunaren izenean besteak sinesmen bakar baten izenean gure kultura zikiratzen dabilzan. Badakizu sentzuraz, euskal sentzuraz liburu bat idazten hasi nintzela, baina gure gizon handi batzuen nazkaz eta nardaz utzia dut, frantsesez diotenez «*besoak erori zaizkit*».

131.orr. Denbora Ez naiz gogoz «*moderno*» ; hitz hori eta horren inguruan dabilan «*aurre-rapen*» pentsakera, kalitate konotazioa daukako ; nere gaurkotasuna, oraingotasunaren ustean, ez dago ez denborarik ez historiaren bilakaerarik (bilakaerak, «*bobetze*» esan nahi badu) ; neretzat denborak ez du garrantzirik iraupenak bai beharbada, bai halaxe batzu hamazazpi urteetan zaharrak dira neretzat eta beste batzu ez hirurogeietan, adina ez baita

Hemengoa

denboraren adina, egintzen ekintzen adina baizik... adin baino «*egindin*» da... Ezlnak zuen sortu Miranderengana zahartzea... ezin idatziak urteek baino kalte gehiago egin... ez-zahartuguraz zuen bere burua hil.

144. Sinkretismoa. Oroitzen naiz nola Elbira Zipitria ikastoleen sortzaile ameslariarekin eta eragilearekin izan nuen eztabaida, harek baitzion gurasoek ez zutela batere erdal kulturarik izan, euskal kultura hutsean bizi zirela. Orixeren «*Euskaldunak*» irakurritz eta Olabideren, euskarazko Biblia. Biblia ez al Judu Herriaren kondaira eta horko kultura gurea gandik hain urrun, nahiz mila urteez zertxobait sartu diguten ?

161.orr. diozu, euskaldunek ez dituztela **koloreak maite**, baina nola esplika diteke penintsulako impresionista bakarrak Euskal Herritarrak izatea ? Zubiaurre anaiak, Arrue, Martiarena, Regoyos eta beste kolorezaleak dira naski Zuloagai, Goya, Zurbaran, Murillo-ren moduan beltzari emanagoa da.

166. Aphaa. Aphaa... zuberoraz gaixtoari esaten zaio... baita krepaut ere bearnesezko hitza (crepaut) kasu hortan baizik ez darabilagu. Jacques de Belaren paperetan Pariseko B.N. delakoan, apezek egindako papertxoek bilduma badago, papertxo horietan aitortpenak, akelarre aipamenak eta satanari ukapenak agertzen dira... batzutan diote apozain, apo janerazle izan direla. Sorhueta, Ezpeize, Bildoze Mauleko jendeek aitorturik.

171. Pio Barojaren pagantasuna literarioa baldin bazen, Miranderena bizitua nahia, hots filosofia bat, praktikan jarri nahi izan baitzuen. Nerea ez zen ezer naiz eta goratik diot berreskurapenen oztopo gai.

176. Arrazoin duzu grifa heroikoaz diozuna ; beste ikuspegiz aipatu nituen Miranderen jorak, haren obretaz egin bilduman, patologiaren hitzekin ibili nintzen, berak psikostenia bezala defenitu eritasunean, malenkonia guzietan bezala, berotaldiak eta hoztaldiak baitira, gorak eta beheak Etsipen garaietan zuen, ez idazten eta eskuin muturreko aho berokin ibiltzen zitzaigun ; beroaldietan berriz «*Ai neza gal bizia !*» idatziko zuen eta ezin idokita-ko euskal erroetara itzuliko.

Arrain Neretzat **arra-in**, guztien gainetikako **arra** da, **Iruinea** guztien gairdiko hiria den legean. Ez ote da berdín **arsto** (eusk. zah.) hitzarekin eta trufaz gaztelaniaz **macho**-arekin. Latinentzat astoak lizunak ziren. arrain : arrano : arsto.

183. Poemagintza. Hor liburuaren beste zatietan literaturzalei, sekulako bazkari ona eman diguzu eta Fakultatean testu hau irakurri eta aipatu dugu, Pauen.

193. Euria esan ta euria erori. Ez da bakarrik zorionaren alegoria, baina gure europar herrietan bizirik gelditu den animismo pentsakerraren oinarria, hitzaren poterea izadiaren gainean. Zuberoraz diote ; «*ez aipa jinaraziko diik*», hain zuzen Maiazteko lehen egun hauetan euri ta euri egiten du, eurixe atertu barik.

199. Arrazoinekin diozu Jakintzak metaforaz baliatu behar lukeala, bestelan denatazioetik ez ateratzeko frantsesek dioten «*langue de bois*», basa hizkuntza ilun ta estalgarria sortzen da gizarte jakintzetan oso modan dagoena, formalizazioaren idolatriaz.

21. **Itsasuntzia.** Holako gai batez Mirandek idatzi du olerki bat.

21.5. Koloreen sailkapena

Zuri naiz, **zur**, **ezur**, bezala, gelditzen garelarik **harri-zur**.

Beltz dira, beleak eta beldurra eta **baltz**, Bizkaiako **Balbea**

Gorri guztiak ez dirade **gor**.

Nola diteke zuri, orria, **hori** behar luke, baina **hori** da orstoa

Horixe ala orixehe, ala orixe ?

218. Eskuen inguruan. Begiena bezala, eskue- na andreari asko gustatu zaio. Zure Donostia-ko aldi laburrak busti dizkigute begiak eta borobildu ukabilak. Andreak esan dit sekulako antsiarekin egin zituela lenenbiziko eskuak marrazkitan. Joseba Maiteak pastel bat egin dizu.

220. Idazlea apaiz legez.

Irakurri ahal duzu Habe-n Jon Etxaide-ren bereskurapen ederrera, itsuena, Mirande ez zela sekulan psikiatren eskuen artean egon, ez zuela aurretik sekulan bere burua hiltzeko asmorik izan (hirur saio, azkena ardietsia) bakarrik ezin zuen lo egin eta lo erremedio

gehiegiz, uste gabean, hil zen. M. Tauriac. L. Bleny ta G. Penaod-en lekukotasunak ez dira ezer ; hura ez han izan eta bere buruarren hiltzea bekatua balitz bezala Mirandegarbitu (?) nahiz dabila (aski garbi mintzatu da Jon bekatuaz.... ukatzeko, baztertzeko).

Gero kristau zaharra eta katoliko zintzoa zela esanaz, parregingarriaren ateak botatzen ditu, Jon Miranderen idazki guztiak hor baitaude... baina ez du axolik... ez du horrek garrantzirik... baliosena haren obra da. Ba al dakizu Jon Miranderen lanetaz arduratu den norbaitek... bilduma egiteko gero damutzen zela esan duela zeren idazlea faszista baitzen.

224. Erronkariko kanta zahar hori ez da bakarra... eta arraroa («single» zer da ?) Lapurtar kantu luzeago baten ondarra baizik *«goizean goiz jeikirik argia gaberik / urera joan ninduzun pegarra harturik»* eta bestea legez bukatzen

Dakigunaz geroztik zer erran amari,
dugun pegarra pausa gaitezen liberti !
Trala la lala, tralalalala, gaitezen liberti !

Doña eta itxura frantsesa du... Iturri kantu eta artzain guti dago gure kantutegian baina frantsesezkoan pilla. Zaharretan bat (Ago-ta artzaina), XIX. mendean lauzpabost, euskaraz.

226. Badirudi lekuizenen ikertzetik eta aztertzetik Euskal Herrian, iturriek izen berezia zeukatela, sakaratu zirela ta ibaiak ez. (Ur, Urumea, Ibaizabal Uhaitz izen komunak dira). Barka, basaburutar hunen etnologiazko gogamen aspergarriak, baina hau zure liburua garrantzitsua dela señaile da, pentsarazten baikaitu ; nik ez dut holako zorionik izan, ez baina sekulan kritikatu izan, ez eta guti baizik erabilia ; besteen gogamenean eragile moduan. Jarrai beraz Joseba zure Donostiako egonaldia bukatzen zelarik eta beluegi ikasi dugulako ez zaitugu ikusi, baina garai hortan, ohar horiek idazten nizkitzun.

Maiatzaren 8an oraindik Santa Grazin elurra egin du eta ortu sortu berria, hamar zentri-moren azpian egon ondoren, izotzak lursagar berriak errexe dizkigu... berriro eguraldi goxoa etorri da, euri askorekin, eta astebete egon naiz etxean gatu gaztearekin, gatu zaharra hotz handiekin hil zitzaigun, gazte hori, zahararen alaba Mifñña izenekoa da, eta zeuk ezagutu zenduenaren ahizpa biritxia dirudi... Etxean ezer ez da aldatu, garai ederreko argazki bat tximinearen gainean, gu lauekin, Ibarburuko atarrarian... Emazteak jarraitzen du Turkian ikusitakoen margo lanak handitzen, hogei tabosten bat irudi daude, Kuraa, Turka ta Armenitar jendeen itxurak gehienak... Nere aldetik nobela labur bat bukatzen ari naiz... hagiografia bat... txerriaz.

Aintza txerriari : bizitza (Aintzina Igelarako egin neban Jaun Done Akerrune-ren *«urunekoa»* izango dala uste dot...) Munduatzerrri begiz ikusita, ez da giza begiz baino hobeki ; nahiz belarri luzeen ohoretan aspaldian egin nahi nuen hagiografia izan den. Beti menendez Pidal-en *«Juglares y juglaresca»* -rekin nengoenari mesede ekarri dit, zeuk gaztelaniazko baladari buruz bidali didazuna batez ere hegoaldeko olerkari batzuen argigarri izan baitzait, baina berriro irakurtzekoa da, helarazi didazun liburua.

Euskal idazleen Elkartearen aurrean zure eta beste lagun guztien aldeko eskaera egin dut, Talde horrek beste kultur taldeekin baitan, Zuzentzako Ministeritzari eska dezaio-lazuek euskaraz idazteko ta eskutitzak hartzeko erreztasunak eduki ditzazuen.

Besterik gabe Joseba, bion besarkada bat, ea erantzuten didazun, noiz eta nola zure ikustera etor gindezken...?

Txomin PEILLEN.

AIRE

Y planetan olerkari-kantari famatua izan zen. Orai, T 319 zen. Bere azkeneko bidaiaz oroit zen. Auzia bukatu eta aireontzi bereziak lota planeta-presondegira beste lagun ez ezagunekin eraman zuenean, hitz guti egin zion, bai denak mundu eta arraza desberdinetatik etorri baitziren, bai eta ere bakotxa bere jar-lekuan finkatzen zuen indar aldeak bularra bultzatuz hatsa bahitzen baitzion. Noiztenka, bere telepatiaz baliatuz besteri gogoeta goibelak ebasten zizkien eta ez zuten batere pizkortzen oroitzapen oinaze urriki arrain beldurti haiek.

Lotan lurreratu eta, planetako androida-medikuek pasagi-lotegi zabal batean preso guziak sarrerazi, biluztu, ikertu, etzanerazi zituzten eta T 319k zer... nahi... erradio eta pikura... jasan... zuen... lañoan zer nahi... zer ?

Bezperan, T 319, anartean gertatu zenaz ezin oroit, zelda honetan iratzarri zen. Zeldak ezagutu zuen, ohizko kontainer «Hermes» ekoa baitzen, Galaxi guziak erosten zuen zeldak klimatisatu eta estandardisatuetak bat. Barnetik aluminiumezko kubo perfektoko bat.

Hara sartu zutenetik, T 319k tronaduran noiztenka pizten zen argi urdin ubela, aire kondizionatuak hedatzen zuen makinaren hatsa, pasagietan urratsak kilixki kalaxka, eta janaria metalezko platera eta basoetan automatikoki heltzen zitzaion leihatilako farrasta zituen lagun bakarrak.

Jeiki zen. Leihotik eskasian nola zekien ba, goiza zela ? A bai, horman jauzten zirelako quartz erlojuko zenbaki beltzak. T 319 berriz ere deitzera entseatu. Zeldak begiratu zuen. Aintzinean zuen horman janarirako leihatila, goian erlojua. Ohetxo mihiserik gabekoa, atzean zuen horman zilatuak. Beste hormak leunak iduri arren, laugarrena hurbildik begiratu zortzi marra meheek bi ate adierazten zuten. T 319k ez zituen nihoiz zabaltzen ikusi. Leihatilaren ondoan, interkomeko plaka beltza. Gainean, sei zilo ttiki : abots-emailea. T 319k plaka hunkitu zuen : abots emeak berriz ere ozendu zen : «**Agur, T 319. Betirako kondenatua zara. Legearen arauera, ebun egun bakarrik egonen zara. Sofritzen baduzu, zoazi ohera, Medikumatikoak iker eta arta zaitzan zerbait zeldan faltatzen bada interkom-a bi aldiz jo. T 319, agur. DOULUN. Agur, T 319. Betirako...**»

Betiko.

Zelda ederki egina zen.

Metalezkoa, hitsa, leun leuna, garbi garbia, epela. Alkirik ez. T 319k alkien beharrik ez. Oheratu eta, laister —laisterregi ?— lokartu zen. Lota eta zeldan bederen nihork ez zion minik eman.

Batbatean TING ! entzun zuen. Xutitu eta erlojuari so egin zion. Bihotza larritu, ahoa zabaldu, bularra hauntu, gogortu lepoa korapilatu, oihu egin eta ezin, haren zintzurak gargara bat besterik ez zuen eman. T 319k bi gauzak batean ulertuak zituen.

Aldi batetik, nihoiz ez zuela berriz hitz eginen. Abots hariak laserez erre zizkiotela.

Eta bestetik, kilixki kalaxkak makinak zirela, bakar bakarra zela. Bere zeda-kontainer espazioan zela.

Ting hori hyperezpaziorako jautziaren ohizko seinalea zen. Zeldak aireontzi edo satelita zen, eta hutsean zebilen.

AIRE

M. PELOT.

hiriburuko

zakurra

Berriz ikusi diat !

Hola hasten dituk ixtorio frango. Hainbestetan... Bazter utzia duk gogamen edo oroitzapen bat, eta heldu zauk irudi olatu bat, oro gaudituz.

Hor duk, potreta zaharren irudi minkor bat bezala. Denbora, urteak, egunak, oro iraganik. Betirako bromurean finkatu soa bezala. Bizi zena eta bizi geldituzkoa besarkatzen ari zauzkanak. Pairamena gaudituz nahi dukalarik kontsolagarri den betierekotasun hura.

Iragan dituk, iragaiten ari haiz, eta gure eguneko zalaparta, zer duk ? Gauza barnakor batzuetan sartzen ari nauk. Nahiko nik kek arintasun zerbait. Ezin diat... Ez dea hori denboraren hare iheskorrean beste batzuei baino gehiago sartua naizelako ?

Gogoratzen diat... Oroit nuk. Oroit. Erran nezakek, alegera banintz : oi iraganaren denbora goxoak, oi gaztetasunaren sua... oi zu, ene maitasun amodio ederra... zure eskuen goxoa eta amentsen hatsa. Ez. Etsipenaren hareak erdi ihetsi eta itorik min diat eta ez deat holakorik erranen. Hik ere jastatua duk behatzen artetik johan zaukan zorionaren ondar fin hortarik...

Berriz ikusi nuela erraiten nean, eta zakur batez ari nindukan. Nor nahik ikus lezakek, ez duk hor segetu handirik. Hiriburuko elizaren ondoan, ba duk etxe bide bazterrean. Horko batean bizi litakek delako zakur hori. Haundia duk. Ez hainbeste, nahi baduk, goratasunez, bainan gorputz zabal gotor bat dik, eta buru argitsu bat, begi haundiekin. Ba, hori duk, buru usiatik kanpoko bat.

Ez duk hori behar bada inportanteena. So eta so eguna iragaiten dik.

Ez duk aise norbaiten soari ohartzea. Are gehiago hari interesatzea. Hire lasterrean habila, hire lanetan, eta ez duk frangotan ahal hori. Besteak hor dituk hala ere. Horien arabera haizela bizi ohartzen haizelarik, gako zerbait eskuratu duk bazter inguruen ulertzeko. So haiz, eta hiri so dituk bizidunak. Soan ba duk zer aipa. Begiari pentsatzen ahal duk, bainan ez duk hori bakarrik, ez duk niñikaren idekidura edo betazalen zabalerarekin neurtzen. Bide zeiharkatu batez, kanpoko iluna edo argia, barneko zorion ala minak, arpegian, begiei, mezu bat bidaltzen die. Mugimendu bat duk, bainan gelditasun bat ere. Hortako dik ba, potreta batek, foto ala marrazki batek, halako indarra. Mezu hori ba eta hori badakik, edo hobeki erran senditzen duk. Behako hori, hiretako duk, pertsonalki, beste batek ez baitik berdin bat ere hik bezala ikusiko. Hiri ari zauk soa. Kasu emaiten balin badiok. Kasu emaiten.

Askotan zakur hori ikusi diat. Aspaldididnik. Bilintzi balantza zabilak batzuetan Baionako bide bazterrean. Balio dik ikustea. Bere bidean zoak, jakintsun zahar baten pare. Berdin Francis Jammes bat iduri, Jainkoari galdede egitera johan, astoentzat, zeruan sartzeko baimena...

Ez dik kasurik emaiten autoen lerroka burrunbari. Behar huke ikusi beste zakur batzuekin kurutzatzen delarik. Beharren egiteko espaloi ezkinetara gure hiritar diziplinatuek ekartzen dituzten zakur trakala horiekin. Zer soa botatzen dien... Ba duk irri egitekoa. Gazte perttoli kakazu horiek nola mespretxatzen dituen, beren moko fin girgil eta beste. Jinen zakok ondora bat edo beste, usaintzera, ba dakik zakurren molde aproposalan, edo xanpaka beren katixima pixtoletaren ahozkatzera... ez duk bere bidetik kantituko. Ze zakurra ! Iduri dik batzuetan Telesforo Monzon guardia zibilen kontrola batetan, Bergarako plaza nagusian.

Gehienetan zakur gaizoa jarria duk. Akitua dela senditzen duk orduan. Adina ere hor. Ez duk ere denbora luzez mugitzen, begiak salbu. Uzten ditik pasatzera pasatu behar diren horiek guziak. Pasa ditezela beren diru eta lasterrekin, beren tarrapata hutsarekin. Egona nuk beha, eta batzuetan luzaz : nehork ez ziok kasurik emaiten gaixo zakurrari. Holako zakur ederra ! Errege zahar bat iduri, mundu iraganari so.

Zenbat aldiz dutan ikusi... Goiz eta arrats, egunaz eta gauaz, euri, hotz ala bero. Ene egunen lerrokada heldu zautak filme zahar marratu batean bezala. Ba zitukan egunak lan egitekoez presak hartuak. Egun iraganak, egun joanak...Harat eta hunat bazoak guzia. Lillura, horra soka eremailca, biharkoa pentsatzen, asmatuz eta prestatuz. Beldurraren egunetaz oroit nauk, merzenario hiltzaileek hemen zabaldu sareetaz, gure betiko gezurti eta tripusteletaz, kontroletako harma beltzetaz. Oroit nauk, gaua zukan, Donibane Lohitzunen atentatu bat, joan behar, gaua, euria, bidean ahal bezain fite. Hor zukan, zoko batean zakurra. Etzakik deus, hor duk ezko piztu bat bezala...

Eta goiz hura, bere eskuan lehen aldikotz enean nindoala. Gaua, euria eta hotza eta barneko berotasun goxoa. Ez nian ikusi zakurrik orduan. Ikusi ninduena ?Hasi berria zela uste nian, ene bizia, segur nindukan.Zerua ere ondatzen zauk, zerua ere. Zer duk bizi hori. Betirako dukan hori, johan zauk den. Den dena. Hiltzeko minak dituzkala, herioaren chaile luzakor eta ez ahanzkorra haiduru dukala.

Gong baten pare dituk biziko lekuko batzu : orai, hire orduak joa dik eta orai hiretzat lillura ahamen bat, eta orai esperantzera bestelakatuko hauena eta indar mugagabekoen jabe jarriko hauena, eta orai maldan beherako aldia jinen zauk. Frangotan ez duk sinesten aldakortasun hortan. Ez hadila tronpa, hirea duk jotzen ari den ordu hori. For whom the bell tolls ? Hiretako gaizoa ! uste huen baino lehenago...Uste duk haratago dela esperantza. Ez duk hala gehiago, hireak egina dik. Dante-ren ifernuan sartzeko bezala, utzi behar dituk esperantza guziak. To, ba, preseski, ez dea hori pentsatua daukuten ifernua ? Egunen zerrendak orduan ustelduak zaizkik, hariz hari, azken piruraino maitasuna joan zauk, eta galdua duk, uste gabeen bizian ukanen huen aments zoragarriena. Zer min ezin jasana hortaz ohar-tzea. Galdu duk, galdua haiz, hor azken puruskak. Besteak biziaren eta iguzkiaren jabe. Eta berriz heldu zauk gogora galde zital taupadazkoa : nolaz hain eder, zabal eta zoro ziren amodioak bihotzaren har jale jin zauz-kik ? Eta hor dituk omen poetak direnen hitz pitoak, biziak pulliki pulliki behexten duela, arrobotsik gabe, ondartzako amanteen oinen hatzak ahazduraren gau hotzean sartzen direla...

Goiz hotzean, mendien xuria... Ikusi dituzka aurtengo lehen elurren jaunzteak ? Mantalin xuriz gure mendiak kukutu dituk. Bidarteko gaintetik, iguzkiaren lehen printzez, Aia-ko mendiak urrezko korona distiranta iduri zian. Andere xuri horien edertasun minerala !

Geldi geldia zela, berriz ikusi diat Hiriburuko zakurra. Maitasunik gabe bizi dela aspaldian ageri dik. Ez dik gehiago halako ikara hura, norbaiten beha denak nahi t'ez erakusten duena. Ez duk aldatuko orai. Esperantzarik gabe munduari behatzen dik.

Anaitzat har nezakek zakur hori.

MAIATZ.

15, Pontrique karrika - 64100 BAIONA
tel : 59 59 86 33 - Banco de Bilbao 20 00 70 14 004

Abonatzeko : urte batentzat (4 zenbaki) : 90 F edo 1 800 pta
(hegoaldetik giro bancario bat Baionako Bco de Bilbao-ri egin)

Esker bizienak aldizkari hau zuen
esketara itxura hontan heltzen
lagundu duten guziet.

Molde berezi batez,
makinan higatu den Beleni,
marrazki egile Irène, Iban,
Itxaro eta Marie Thérèse-ri,
mahain inguruka oinetakoak
higatu dituzten Isabelle, Antton,
Iñaki, Pablo, Alexandre, Jaki
Dominika eta Lucieni.

*Duela urte bat, liburu agertzen hasi zen
MAIATZ taldea.*

*Liburu horietarik erosten ahal duzue liburu-
tegi zintzoenetan. Ezinbestezko batez, manatzen
ahal dizkizuetegu, diruaren truke alabaina.*

1 - Itxaro BORDA : Bizitza nola badoan - poemak
(1974 - 1984).

*Poema liburu hontan, talendu bizi baten
sintesi orokor bat. Milikatzekoa.*
72 orrialde, 30 F edo 600 pta.

2 - Marc LEGASSE : Concerto Guerrillero (frantse-
sez) eta Prelude bat euskaraz BELTZAK.

*Sar hitzak Irlandara eremaiten gaitu, eta ondo-
tik, euskaldunen gogo errebelatuaren omore
sendikorreko analisi poetikoa.*
88 orrialde, 30 F edo 600 pta.

3 - Mañex ERDOZAINTZI-ETXART :

Herri honen errailetan.

*1974.ean idatzi poema luzea. Herri eta giza
maitasuneko Kantata. Biziaren ur xirriparen
bidea amodio iguzkiz.*
48 orrialde, 30 F edo 600 pta.

4 - Eñaut ETXAMENDI : Aurora.

*Bihotz larrutuaren oinaze intziria. Oroimenean,
bide dorpea, Garaziko bortuetako lilien hats
bero zitalean, gaztetasun zoragarritz. Eñauten
bigarren liburua.*
48 orrialde, 30 F edo 600 pta.

5 - Mayi PELOT : Biharko oroitzapenak.

*Sei fikziozko ipuin (Miren, Boga Boga, Feed
Back, Telelabintoa, Plist Plast, Harremana).
Zikindura, informatika, automatismo eta botere
beldurgarriez inguratu gizakien mundu bat. Mi-
tologiaren oihartzun bat, azkenean, Wotan eta
Erdaren harreman berezia. Idazmolde berri bat.*
128 orrialde, 40 F edo 800 pta.

6 - Imanol TXABARRI : Hitzak Naroa.

*Hitzaren eraginez, isiltasunez, amodiozko poe-
mak. Bakartasunaren desioak apirilaren eurian.
Berak egin marrazkiekin.*
48 orrialde, 30 F edo 600 pta.

Maiatz.

15 PONTRIQUE KARRIKAN 64
100 BAIONA - TELEFONA 59 59
86 33 - LEGEZKO EMAITZA 198
5.EKO LAUGARREN HIRURHIL
ABETEALDIAN - AGER ARAZLE
Maiatz. BATASUNA - BAIONA
KO BALIXONEKO ELKARTETXE
AN - LEGEZKO ARDURADUNA

M. BOVARD - INPRIMITZAILEA , IMPRIMERIE ARTISANALE BAIONAN
1985.EKO ABENDUAN - HIRU HILABETEKARIA - SALGAI 25 LIBERA
500 PEZETA - URTE OSORAKO HARPIDETZA 90 LIBERA ♦500 PEZETA -
BANCO DE BILBAOREN KONDU ZENBAKIA BAIONAN 20 00 70 14 004